

ZENBAT BURU

Jose Mari Bastida

ERREPORTAIA

Mitch hurakanaren
ondorengo egunak
elgoibartarrek
kontaktuta

UDALETXETIK

Ongizate Saileko
Premia Larriko
Zerbitzu Soziala

BERBETAN

Pedro Regil,
50 urte
Udal Musika Bandan

KIROLA

J.M. Fernandez,
V. Igoera Karakatera
lasterketaren
irabazlea

BORREN

1998ko azaroaren 20a
V. urtea - 257. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



Santa Zezilia
Musikoen
egun handia

"Musika bihotzetik ateratzen den sentimendua da" Chopin

Hi. Hirekin.



.Kutxa batean aurkitzea espero duzun guztia (.eta inoiz uste izango ez zenukeena) GazteKutxan aurkituko duzu. Zure egitasmoak, lana, ikasketak, trebakuntza, aisialdia... Gaztea izanik ere, zeure buruaren eta zeure diruaren jabe izateko garaia ere bai baituzu. Eta horretan laguntzeko prest ari gaituzu lanean gu beti. Estilo berri bat hartu nabirik, proposamen berriak ekarriz eta gugandik espero duzun guztia sortuz. Zeuk erabaki.



www.gaztekutxa.net

Hi. Hirekin.
gazte kutxa
Contigo.



JOSE MARI BASTIDA

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeraten dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratu du.

Euskaldunak, sexA eta 3aruidorn

Euskaldunek mediterraneora jo izan dutenean hainbat tokiri jarri izan diote izena. Horren lekuko ditugu Erdi Arotik gaur arteraina iraun duten 'Aran' harana, Ondara eta gainerako beste hainbat toponimo. Hildo honetatik abiatuz, xelebrequeriak ere baditugu, nonbait otordu astunen ostean sortu bide diren Badalona (Bada lo ona) eta Bartzelonaren (Bart ze lo ona) antzekoak.

Ba ote du horrek zerikusirik sexua eta Benidorm-ekin? Dudarik ez! Elgoibartarrak partaide? Bai, horixe!, eta jubilatuek saltzan?... akabo, ba! Bertan ikus dezakezue Benidorm ez dela jubilatuen getoa eta are gutxiago sexuarena (beno, sexu librearena baliteke).

Orain dela zortzi urte Valentzian azaldu nintzenez, lagun berriak bazkal ondoren zer egin behar genuen erabakitzen ari zirela, irtenbide azkarra aurkitu zuten: "¡Vamos a la calle del colio de Benidorm!". Ezkondu berria nintzela esan eta barre algarak jaso nituen inguruan, euskaldunak zirela negozioren jabeak aitzaki. Autopistan nindoala neure arteko burutazioak: euskaldunak negozio zikin horren barruan eta Benidorm-en osatutako mafia bereziaren bitartez "Barrio Txino"aren jabe izatea? Gertu nintzen beraz, bertan 'Padrino' Txomin, 'Marnma' Ainhoa edo 'Consellere' Garrikabeitia aurkitzeko.

Lagunak, alai, berrehun kilometroko bidaietan. Ni, berriz, buru bero, ezer urlertu ezi-


nik, sexu kontuan euskaldunak rnotzak, motelak eta makalak izan baikara gehienbat. Nolatan, derrepentean, Benidorm-en sexualitatearen 'Parke Jurasikoa' antolatu? Hori bai ikuskizuna! esan nien lagunei, horrekin nahikoa nuela azalduz. "Ez dago arazorik! Badaukak nonahi pintxoak hartzea, hala nahi baduk". Turista azkarrentzat eta afaldu ondoren 'cafe completo'aren bariante bat izango zelakoan nengoen (hau bai konplettoa, aizue!). Hona hemen Benidorm-eko Turismo Bulegoak erabiltzen duen estrategietako bat IMERSOK dakarren dirua bereganatzeko.

Herrira iritsi ginen eta zuetako askok eza gutzen duzuen kalerantz abiatu ginen. Nahiz eta ilunabarra izan, ez nuen neska panpoxik ikusi. Bai, ordea, pintxo eta jende andana... gau girorako gertu beharbada? Terraza bateko mahaian afaltzeko zain geunden bitartean, Iagunek jendearen elkarriketei erreparatzeko esan zidaten, irrifar txikiar "¡Cotio, tu por aquí!". "Koño, heu hamen! Koño ze habil...!". Coño gora eta Koño behera, euskaldunak eta sexuak sortutako kezkei erantzuna emanez... banengoen, ba! Goizeko seiretan buelta Valentziara bapo edanda, hobe janda esatea, eta sexua... beno, geto horretan jubilatuek badute zer kontatua (emakumeek bereziki).

Honako hau duzue Mediterraneoko txoko honetatik idatzitako kontuen bukaera. Besterik gabe, har ezazue euskalerritar sentitzen den hongenagandik agur bero bat eta hurrengora arte.

Barreak, Birkak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
171 943 74 41 12
Publizitatea:
1T 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topagunea.jalgi.com

- ARGITARATZAJLEA Elgoibarko Izarra
- LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala
- ZUZENDARIA Ainhoa Lodoso
- KAZETARIAK Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro
- PUBLIZITATEA Miren Moreno
- MAKETATZAILEA Berta Ansola
- ADMINISTRAZIDA Amaia Martin
- GERENTZIA Rafa Alvarez,
M. Angeles Ortuoste.
- KOLABORATZAILEAK Iñaki Agirreazaldegia,
Ana Artetxe, Jose Mari Baslida,
Mari Karmen Elorza,
Maider Elustondo, Jon Eugi,
Koldo Galdona, Aintzane Garate,
Jon Garate, Juanito Gorostiza,
Amaitz Gorriti, Alberto Iriondo,
Iñaki Jaio, KOKOE,
Imanol Larrañaga, Nieves Loiola,
Ongarri Zine Kluba, Asier Orbea,
Julian Segundo, Jon Suarez,
Anjel Ugarteburu, Iban Urizar,
Miren Vallejo.
- BANAKETA ARDURADUNA Imanol Larrañaga
- INPRIMATEGIA Certu Koop. E.
- TIRADA 4,000 ale
- LEGE GORDAIDA 1.038/92
- ISSN 1139-1855

Elgoibarko Udalak, Eusko
fauertarii zako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.



EIRO fundazioa
fundación

4 DANOISAT

41 GOITD
GRUPO DANOBAT

Eibar-GaKeiz auKaplsto_g eta laputgla A8an

Azken egunotan Eibar-Gasteiz autopistari buruz eta proiektu honen finaraziazioari laguntzeko, Gipuzkoako Aldundiak A8 (Bilbo-Behobia) autopistaren peajea beste 40 urtez luzatzeko duen asmoa entzun eta irakurri ahal izan dugu komunikabideetan.

Honen aurrean, Elgoibarko Herri Batasunak erreflexiora deitu eta larunbatean, hilak 21, arratsaldeko 19:00etan Gasteizko Virgen Blanca plazan izango den manifestaziora deitzen dizue. 'Eibar-Gasteiz autopista zertarako?' lemapean, Eguzki talde ekologistak, EHNE nekazari sindikatuak, Gatzaga-Landa plataformak eta Deba bailarako hainbat kolektibok antolatutako manifestazioa da.

Hona hemen zenbait erreflexio laburbikluta:

Nahiz eta Deba bailarako puntu batzuetan trafikoa oso handia izan, barruko trafikoa da. Horregatik, herrien arteko errepideetan hobekuntza sakonak egin beharko lirake, baina autopista eraikitzeak ez du zentzurik, ibilbide luzeko trafikoarentzat pentsatuta baitago.

Eibar-Gasteiz autopista (A1) ez da beharrezkoa, Euskal Heniak Iau ibilbide eskaintzen dizkiolako nazioarteko trafikoari: N (Irun-gasteiz), A8 eta A68 (Bilbo-Behobia eta Bilbo-Gasteiz), Leitzarango autobidea eta Belateko ibilbidea.

Eibar-Gasteiz autopista (A1) ez da errentagarria, Donostia-Gasteiz ibilbidea egiteko, Nlekin konparatuz, (Etxegarateko desdoblamentua egin eta gero) 5 km eta 3 minutu bakarrik aurreratzen baitira, Nlean peajerik ez dagoen bitartean, A 1 ean autoentzako peajea 1.650 pta.koa izango da eta kamioentzako 2.900 pta.koa.

Ikuspegi ekologikotik, peajedun

autopistak trazatu berria eskatuko luke eta izugarriko erasoak izango litzaiteke horrelako bailara estuarentzat.

Azkenik, manifestazioaren lenutri erantzun behar diogu: 'Eibar-Gasteiz autopista zertarako?' Ba, betikoen poltsikoak betetzeko. 120.000 milioitako hasierako aurrekontua duen obra hau finantziatzeko, Europistas-i A1 autopista berriaren peajearen kontzesioa emateaz gain, A8ren (Bilbo-Behobia) peajea beste 40 urtez luzatuko liokete (duela urte batzuk 2003 urtera arte luzatu zuten).

Hauxe da Eibar-Gasteiz autopista eraikitzeke benetako arrazoiak: Alen bitartez eta A8an beste 40 urtez egingo dituzten lapurketen bidez lortuko dituzten irabaziak.

Bestalde, A8ren peajea luzatzeak beste ondorio batzuk ere baditu: peajedun autopista eraikitzeke, legeak peajerik gabeko beste alternatiba bat egotea eskatzen du. N-634 errepidea benetako alternatiba ez denez, honek herri guztietan bariantek eraikitzeke behartzen du, gure lurralde osoa zapuztuz. Eibar-Gasteiz kasuan gauza bera gertatzen da.

Beraz, gure bailararen etorkizunak eta gure poltsikoaren defentsak, Eibar-Gasteiz autopistaren aurka egotea eta A8ren peajearen aurrean intsumitu izatea eskatzen digu.

Oharra: Manifarako autobusa antolatu dugu. Adi egon!

Elgoibarko Herri Batasuna

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adterazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia.



• Santa Klara auzoan bizi diren bi mutiko etorri dira **herriko beste auzo batzuetan, "Erretxindin eta Urasandin, esaterako, ping-pongeko mahaiak badaudela-eta, gure auzoan, berriz, ez dagoela" salatzeko. "Guk ere ping-pongeko mahaiak nahi dugu".**

• Emakume batek Aita Agirre plazatik Trenbide kalerara doazen eskilaren egoera negargarria salatu nahi du: **"aspaldi honetan eskilarak oso zikinak daudela igarri dot. Zabortegei bat ematen dau, papalez eta era guztietako zakarrez beteta dao.** Garbitxu ere ez dakitx batenbatek eingo daban. Albuana parkia dao eta ume asko ibiltzen da bai parkian eta bai eskilaretan gora eta behera jolasian. Udaletxeakuek bueltatxo bat eman biharko leukie handik, zein egoeratan daon ikusteko. **Honez aparte, Musikeskola berrixan eraikuntza geratuta dauala ikusi dot. Obria inguratzan daben tabloiek eskilaretarako pasua isten dabe eta umiak ibiltzen diazen parketik pasau bihar izaten dou.** Ezin leike tabloiak kendu pasua libratzeko'?"

• Emakume batek kexa hau plazaratu nahi du: **"Musikeskola berrixa eraikitzen ari dian lekua hesi batzuekin dao ingurauta obra barrura ez sartzeko. Baina tabloi batzuek ume bat sartzeko moduko bitxartia dakate eta beste egunian zenbait ume bitxartietatik obrara sartu zian.** Hirugarren pisura ixo eta han ibili zian jolasian. Jaisteko agindu genien horrela ibiltzea oso arrikutsua zela esanez, baina umiak beti ume, eta ez ziguten kasurik ein. Mendaroko ospitala eraikitzen ari zianian istripu bat gertatu zan ume batzuk obra barrura sartu zialako. Ume bati burdin batzuk gainera jausi jakozen eta hil ein zan. Ez dot alarmista izaterik nahi, baina lehenbailehen tabloiak ondo itxi biharko leukie zeozer larrixa gertau aurretik.



1E3 L1\ 111

Z1\ JV_



J. Antonio Osoro
Udal Musika
Bandako zuzendaria

Azaroak 22, Santa Zezilia Eguna dugu, musikoen eguna. Urtero egiten dugun legez, aurten ere musika munduarekin lotuta dagoen elgoibartar bati deitu diogu gai honen inguruan berba egiteko. **Jose Antonio Osoro** da telefonoaren beste aldean izan duguna, **Udal Musika Bandako zuzendaria**, hain zuzen ere.

- **Sentitzen al duzu zerbait berezirik Santa Zezilia Egunean?** Bai, noski. Benetan pozgarria da gure zaindariaren eguna ospatu ahal izatea. Pribilejioa da niretzat musikaren mundu zoragarriko kidea izatea. Oso ederra izaten da mahai baten bueltan musiko guztiak, udal ordezkariak eta bandakide ohiak bildu eta musikari eta bandari buruz berba

- **Nola ospatu behar du Musika Bandak musikarien eguna?** - Ahalik eta hobetoen. Lana eginez, ilusioz, goizez joko dugun martxa alaiarekin hainbeste errespetatzen eta miresten dugun Elgoibarko herria esnatuz,... horrela ospatuko dugu. Eta nola ez, gure lagun Pedro Regil omenduz, 50 urte Bandan izan delako (ez da makala!). Beti edozertarako prest, puntuatua, musiko handia. Merezi du. Besteak beste, kontzertua zuzentzen ospatuko dut nik egun hau. Lan handia egin dugu kontzertu hau prestatzeko, gure publiko estimatuari gustatuko zaion esperantzaz. Publiko estimatua esan dut, beste herrietan horrelako ikuslegorik ez dagoela uste dudalako.


- **Batzuk joan eta beste batzuk etorri. Musika Banda ere bizitzak ezarritako legearen haritik zintzilik dago, ezta?** - Bandan hasi nintzenean 25 musiko ginen. Zuzendaritza hartu nuenean 35 lagun eta gaur egun 52. Beti daude uzten dutenak hainbat arrazoi direla medio, baina zorionez ordezkorik ez da falta izan. Elgoibarko "harrobia" agortezina da. Musiko batzuk Banda lagatzen duenean pena handia ematen dit baina zer egingo dugu,... bizitza horrelakoa da.

- **Amaitzeko, esaiguzu zein den Elgoibarko Bandaren egungo osasuna.** - Gaur egun 52 lagun gara. Zenbaki polita dela uste dut baina 4 edo 5 kide gehiago izango bagenitu hobea, egurraren arloan batez ere. Ilusiorik ez zaigu falta. Kontzertu eta kalejira guztiak ahalik eta dedikazio handienarekin prestatzen ditugu, ikuslegoak gero eta gehiago ulertzen eta eskatzen baitu. Espektatibei erantzun egin behar diegu. Urtean 13 kontzertu ematen ditugu; 9 kalejira, prozesio I eta dantzaldi 1. Sona handiena duten emanaldiak Herriko Antzokikoak dira. Beti dago "lepo". Ikuslego sutua dugu eta txalo beroak eskaintzen dizkigute. Bandaren jarraitzaile amorratuak dira. Benetan da eskertzekoa. Elgoibarko ikuslegoak hamarrekoa merezi du. Zorionak musikari guztiei Bandakoen partez.

MITCH HURAKANA

ren testigantzak

ELGOIBARTARREN ESKUTIA



Azaro hasieran Ertamerika erabat suntsitu zuen Mitch hurakanak mundu osoaren elkertasuna eta laguntza piztu ditu. Hala ere, denborak aurrera egin ahala, gertaera hori ez dezagun ahaztu, Ertamerikan lanean diharduten bi kooperantekin hitz egin dugu. Jose Ramon Zudaire, Gobernu Kanpoko SERSO erakundeko misiolaria da Hondurasen. Ion Gorriti Wirugarren Mundua eta Bakea erakundekoa, El Salvadorren dago. Beraien testigantzek hurakana nolakoa izan zen argituko digute eta Gurutze Gorriak, Caritas-ek eta Pilar Ikastetxeok herrialde horiei nola lagun diezaiekegun azaldu digute.

Jose Ramon Zudaire Honduras-eko Jutiapa eskualdeko San Viatorreko misioan zegoen misiolari Mitch hurakana izan zenean. Bere hitzetan, "eskualdea arrisku bizian dago euriteak direla-eta ibaiak asko ari baitira hazten eta jende gebiena nekazaritzatik eta abeltzantzatik bizi da". Zudairek azaldukoaren arabera, "lehen informazioen arabera, hurakanaren eragina 95 kilometrotan igarri zen eta haizeen abiadura orduko 285 kilometrokoa izan zen. Urriaren 26an beldurra nagusitzen hasi zen eta herritarrek, gerta zitekeenaren beldur, elikagaiak, arropak eta erregaiak erosteari ekin zioten". Berehala iritsi zen hurakana Jutiapara, "haize izugarri handiek eta, batez ere, Papaloteca eta Sambonango ibaien ur handiek aurrean harrapatutako guztia suntsitu zuten. Komunikazio bide guztiak zeharo txikituta, eskualdea isolatua geratu zen. Gainera, gosearen arriskua handia da arroza eta frijolea jasotzeko baitzeuden, eta uholdeen eraginez uzta gehiena galdu egin da. Zaharrek ez dute antzeko ezer gogoratzen. 1974. urtean inguruak sun-

tsitu zituen Fifi hurakana ez zen, inondik inora, Mitch-en mailara iritsi".

Hurrengo egunetan kaosa nagusitu zen, "gure zentroa gainezka zegoen 400 pertsona baino gehiago elkartu ginelarik bertan, jendeak etxeak utzi behar izan zituen... Batzuek jateko zuten apurra besteekin banatu zuten baina denda batzuek, egoera ikusita, prezioak igo egin zituzten". Azken batean, Jose Ramonen hitzetan, "hurakanak, jendearen onena eta txarrena erakutsi digu".

ETA ORA I N, ZER?

Urriaren 30 aldera jendea beraien etxetara itzultzen hasi zen. Hala ere, askok eta askok etxea galdu zuten eta ez zekiten norra joan. Ondorioz, "jende askok gure zentroan janaitu zuen. Azken batean, gurekin egunean jatordu bat eta lo egiteko aterpea ziurtatua dute. Zorionez, azaro hasieran egoera lasaitzen hasi zen poliki-poliki".

Honduras osoa "salbuespen egoeran" dago gaueko 22:00etatik aurrera, lapurreten eta bestelako istiluen beldurrez. Gaixotasunen eta epidemien beldurra ere handia da: kolera, denge-a... Azpiegiturak guztiz

suntsituak daude, beraz, herritarrek bizi-modu berri bati hutsetik ekin beharko diote hemendik aurrera. SERSO izeneko Gorbemuz Kanpoko Erakundeko kidea da Jose Ramon eta azaldu digunez, "hiru egiteko nagusi ditugu Jutiapa eskualdean. Bate-tik, jangela mantendu nahi genuke herrian gehien behar dutenei gubdenez jatordu bat eskaini ahal izateko. Bigarrenik, herririk eta familia behartsuenei oinarrizko laguntza eman nahi diegu iristen hasi diren laguntzen bitartez. Hirugarrenik, egoera larri-ri aurre egiteko oinarrizko fondo ekonomikoa bermatu nahi dugu". Hau guztia lortzeko, SERSOK Elgoibar eta inguruko herrietako jendeari dei egin dio laguntza ekonomikoa eskaini dezan Caritas, Gurutze Gorria edo beste erakundeen bidez.

EL SALVADOR-eko GERTAERAK

Ion Gorriti elgoibartarra Iliugarren Mundua eta Bakea' izeneko Gobernu Kanpoko Erakundeko kooperantea da eta El Salvadorren dago. Esan digunez, "El Salvador-en ez da bain gogorra izan hurakanaren eragina, Nikaragua eta Honduraseekin konparatzen badugu. Herrten, 240 hildako, 135 desagertu eta 60.000 pertsona, kaltetu izan dira. Nekazaritza eta abeltzantzari dagokionez, 17.000 milioi pta. galdu dira eta azpiegituren galera zenbatu gabe dago oraindik".

Gorritik azaldu digunez, El Salvador-en planteatu diren arazo nagusienak Lempa ibaiak, El Salvador-go ibairik garrantzitsuenak sortu ditu. Izan ere, ibai honek herrialdea bitan banatzen du eta urak haztean inguruak hondatu egin dira. Dena dela, pertsonen bizitza bermatua dago eta une honetan premiazkoena azpiegiturak

konpondu eta berrezartzea da".

Gertatutakoa gertatuta, mundu osoan jendea laguntza eskaintzeko prest azaldu da. Honen aurrean, Ionen ustez, "Ertamerikan gertatu den hondamendiak guztiok hunkitu gaitu eta edozer egiteko prest gaude ahal dugun neurrian laguntzeko. Hala ere, garbi utzi nahi dut arazoa ez dela hurakana bakarrik izan. Hau da, Ertamerikak aspalditik bizi duen egoera oso latza da, pobrezia handia dago eta hurakanak areagotu egin du egoera hori. Esaterako, Floridan ere sufritu dute *Mitch* hurakana eta Republica Dominicanan *George* hurakanak erabateko hondamendia ekarri zuen baina, bai batean eta bai bestean, eragina ez da Ertamerikan bestekoa izan. Hau da, Ertamerikak aurretik bizi duen egoera txarra areagotu egin du hurakanak, Ertamerikaren arazo larriena txirotasuna da, hirugarren mundu osoan bezala". Elgoibartarrok era askotara lagun dezakegula adierazi digu Ionek, "%0,7aren aldeko plataforma sor daiteke, elkarlaguntza proiektuak sinatu, heziketa konbenioak bultzatu... Azken batean, lehen munduak zeregin handia du 3. munduaren egoeraren hobekuntzan. 1. munduak ez badu 3. munduari buruzko erreflexia sakona egiten, bizitza guztian zehar partxeak jartzen ibiliko gara eta egoera bere horretan mantenduko da beti".

ELGOIBARTARRON ERREAKZIOA

Azken asteotan elgoibartar askok eta askok helerazi diote euren laguntza Ertamerikari. Zeregin horretan dihardute Pilar Ikastetxeak, Gurutze Gorriak eta Caritas elkarteak. Pilar Ikastetuan esan digutenez, "dagoeneko (astelehenean) 1.050.000

pta. bildu ditugu. Hala ere, oraindik gehiago behar da eta herritarrei dei egiten diegu jarrai dezaten euren laguntza eskaintzen. Laster bidaliko dugu jasotako dirua Hortduras-era. Halere, SERSO Gobernu Kanpoko Erakundeak kanpainarekin jarraituko du, ez dirulaguntza jasotzeko bakarrik, baita jendea sentsibilizatzeko ere. Orain batean dirulaguntza eman arren, arazoak hor jarraituko du".

Gipuzkoako Caritas elkartetik azaldu digutenez, guztira 250 milioi bildu dituzte. Gipuzkoako Caritas-en Ertamerikako arazoan arduraduna den Koldo Murok jakinarazi digunez, "Gabonak bitartean kanpainarekin jarraituko dugu, dirulaguntza eskariarekin batera, sentsibilizazioa ere landuz. Bestalde, kaleko jendearen erantzuna izugarria izan den arren, espero dugu denborarekin erantzuna ez jaitea eta Eusko Jaurlaritzari eta udalet ere inplika daitezen eskatzen diegu, herritarrek erakutsi duten eredia jarraituz. Agintariek Ertamerika eta hirugarren munduari laguntzeko ahaleginak egin behar dituzte, esaterako, %0,7a bidaliz".

Gipuzkoako Gurutze Gorriak 12.455 milioi pezeta bidali ditu. "Dinilaguntza bakarrik onartzen dugu, ze denbora eta dim asko galtzen da gauzak bidaltzen. Hirugarren munduaren fenomeno ez da Ertamerikara mugatzen, beraz, Gurutze Gorriaren aurrekontuaren zati bat "Fondo de Cooperación Intemacional" delakoari ematen diogu, hirugarren mundu osoan proiektu desberdinak aurrera eraman ahal izateko. Une honetan jasotzen ari garen laguntza asko eskertzen da baina aurrera begira ere egiteko asko egongo da".

Arnaitz Gorriti



1211111?

Goian, ezkerretik hirugarrena Ion Gorriti, El Salvadorreko lagunekin.

Zuk ba al dakizu zein diren Haurren Eskubideak?



ANDER MARTIN

9 urte

Bai, mundu guztiko umiek dauzkagunak, berdinak dianak danontzat: jolasteko eskubidea, berdintasuna izateko eskubidea, laguntza jasotzeko eskubidea, bakea,...



MARTA CONDE

11 urte

Lelengua da ikastia eta gurasoek ezin dituztela semeak jo, nahiz eta zigortzeko eskubidea baduten. Jolasteko denbora eukitzia ere inportantia da haurrentzat.



SANDRA MONTES

10 urte

Bai, klasian egon gera haurren eskubideak zeintzuk dian ikusten. Adibidez, leku batzuetan umiak lan eitxen dabe eta jolasian egon biharko lirateke.



JON GARATE

11 urte

Lagunak errespetatzia, ni errespetatzia,... Zapatuko botaziva ondo dao eta ondo imditzen jata, ze horrela, gobernuak umiengatik gauza gehixo itxeko balioko du.



ARRITXU ZIALTZETA

11 urte

Lehenao batzuk ezagutzen nitxun baina oin konszientiaua naiz eskubide batzuk dauzkagula eta errespetau ein bihar diala mundu guztixan.



GOFIKA OTERO

10 urte

Jolastia, hori oso inportantia da. Beste batzuk ere ezagutzen ditzut: gurasoek gu zaintzia, ondo bizitzeko eskubide a izatea,... Lelengo aldiz emango det botua.

John Smith
Jose Latata,

41
d\$;

compartir
Sin compartir

1000

NetIVeeting™

Edozein 'datziliaaREnera

posta elektronikoz bidali nahi baduzu:

barren@topagunea.jelgi.

[1-7] IE4IFFIi



DEGIRA

*au l%ctIodak Arrattke-

Bake Epailea

- Zer da bakea? - Zure buruakin gustura egotia.

- Justizia existitzen al da?

Teorian bai, baina praktikan hatzuetan ikusten da ezetz.

- Beldurra al diozu heriotzari?

- Bai, baina ez jata gustatzen heriotzari buruz berba eitxia.

Zenbat seme-alaba izan nahi dituzu?

- Bost, baina gaur egun oso zaila da.

- Zein paper sinatuko zenuke gustura?

Lan arazorik sekula ez izatia ziurtatuko lidakeen edozein.

- Zer esan nahi du 'bake epaile' hitzak?

Berez, bi pertsonen artian arazua egon bada, epaiketa ein aturetikan irtenbidia topatzen saiatzen da. Horrez gain, herriko heriotzak eta jaiotzak zertifikatu eta bikoitiak ezkontzen ditxu.

- Justizia zure esku bazenu, zein kasutan erabiliko zenuke?

Gaur egun Estatuan dauden desfalko guztien aurrian aplikatuko nuke.

- Zer esan nahi du zuretzat ezkontzak?

- Ezkontza berez paper bat sinatzia da, elkarbizitza da eguneroko lana.

- Nor ezkondu nahi zenuke? Behin lagun batzuk ezkondu nitxun eta ilusiva ein zian.

- Izan al duzu anekdotarik norbait ezkontzean?

Behin, neska bat oso dotore etorri zan eta mutila, berriz, txandalian. Gainera, eraztuna batak bestiarri jarri biharrian mutilak beria jarri zaban, eta neskiak negarrez bukatu zaban. Triste urten nitzan ezkontzatik.

- Sinesten al duzu betiko maitasunean?

Bai.

- Gustuko duzun hitza?

Itsasua, oso kostakua naiz.

- Jendearengan baloratzen duzun ezaugarria?

- Gauzak argi esatia, gizurrik gabe.

- Zure bertute bat? Hori bestiek esan biharko dabe.

- Berriz jaiko bazina zer izan nahi zenuke?

Isa Azpeleta izan nahi nuke, baina beharbada Erta-roan.

- Zein gaitasun izan nahi zenuke? Kirola itxen ona izatia.

- Desio bat? Loteria tokatzia lasai bizitzeko.

- Zure bizitzako lema?

- Bakoitza nahi dabana ein dezala bere bizitzakin, beste inorekin sartu gabe eta kritikatu gabe.

gofi

flatorenizako cm.'opck

aazfexoenizako arropo,

Giza eskubideen enparantza, 1 • 943 74 46 53



ITURAN

PEDRO PEREZ BERISTAIN

San Roke, 30 behea, tr. 943 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

• **'Horidharlant ikuskizunerako sarrerak salgai**

Haritz Dantzari Taldeko ki-deak, Donostiako, Atiorgako eta Lapurdiko dantzariekin batera, Juan Antonio Urbeltzen azken ikuskizunean, 'Kondharian' izenekoan, parte hartzen ari dira. Azaroaren 28an, Azkoitiko Baztartxo antzokian taularatuko dute eta sarrerak aurrez eskuratzeko aukera izango da Pitxintxu dendan 1.000 pta.n. 'Kondharian' dantza eta musika tradizionalaz osatutako ikuskizuna da eta sineskaria eta ipuin tradizionalen kontakizun batean dago oinarrituta. Koldo Amestoyk kontatzen dituen zazpi ipuinen inguruan koreografiak eta egoerak egokitu dira. Antzerkia eta dantza batzen dituen ikuskizun honetan 70 bat dantzarik hartzen dute parte eta protagonistetako bat Mikel Legorburu elgoibartarra da. Ikuskizuna gaueko 22:30ean izango da Azkoitiko Baztartxo antzokian.

• **Telefono bidezko iruzurra**

Posta elektronikoz BARRERNA iritsitako idatzi baten ohartarazten denez, telefonoz iruzur egiten duen enpresaren bat dabil jendea-ri deitzen. Iruzurra honela gauzatzen dute: etxeetara deitzen dute Teleffinica-ko Zerbitzu Teknikokoak direla esanez, eta tonotan markatzeko aparatuek duzun galdetzen dute (botoiduna, ez erruleta formakoa). Linea konprobatzen dabiltzala aitaki, '90#' zapaltzeko eskatzen dizute. Dena ondo dagola eta eskerrak emanez agurtzen dira. Itxura denez, '90#' markatu ondoren, enpresa honek egiten dituen dei guztiak zuk egindakoak bezala agertuko dira eta zuri kobratuko dizkizute. Teleffinica iruzurtien atzetik dabil baina oraindik ez dute ezer lortu.

UNICEFen Haurren Ahotsa Kanpaina
Herriko 295 neska-mutilek hERITTE eskubideen aldeko botoa emang clz

Bihar, hilak 21 (zapatua), Udal Areto Nagusian izango da bozketa

rte amaieran Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak 50 urte beteko ditu eta datorren urteko azaroaren 20an, Haurren Eskubideen Hitzarmenaren aldarrikapenaren 10 urte beteko dira. Bi data hauek bateratuz, *Unicef* erakundeak haurren eskubideen eta partehartzearen inguruan kanpaina erraldoia antolatu du, 'Haurren Ahotsa' izenekoan. Kanpaina hau Elgoibarrera ere iritsi da eta herriko ikastetxeak daude inplikaturik. Izan ere, zapatuan, hilak 21, 8 eta 11 urte bitarteko 295 neska-mutilek bozketa simboliko batean hartuko dute parte. Haurren Eskubideak zein diren zehazten duen bozketa-paper bana hartu eta Udal



Areto Nagusian jarriko diren hautesontzietan utziko dituzte. Goizeko 11:00etatik arratsaldeko 18:00ak arte egongo da irekita botazio-gune berezi hau. Botazioaren bidez, haurrek ikasiko dute bakoitzak bere iritzia adierazteko eta besteena errespetatzeko egiten direla hauteskundeak. **Honez gain**, eskubideak zein diren ezagutzeko, azken asteotan hainbat lan eta tailer antolatu dituzte ikastetxeetan.

Programaren helburu nagusia Haurren Eskubideen Aldeko Konbentzioa zabaltzea eta ezagutaraztea da. Hau da, haurrek euren eskubideak zein diren ezagutu eta besteena errespetatzen ikastea.

Gotzon Garate idazle elgoibartarrak atsotitzen liburua eta CD-ROMa kaleratu ditu

27.173 atsotiz bildu ditu, batzuk galtzeko zorian zeudenak

riotzon Garate elgoibartarrak urte askok_11 tako lanaren fruitua den liburua eta CD-ROMa kaleratu berri du: '27.173 atsotizak, refranes, proverbial, proverbial'. Izenburua bezain luzea eta sakona da Gotzonen lanaren edukia, "herri filosofia jasotzen du". 30 urtetan Euskal Herri osoko baserrietan egindako bisitaldietan jasotako erretratuak dira. BBKren eskutik argitaratutako liburu honetan, 27.173 atsotizetatik 14.458 euskaraz daude, 4.050 ingelesezkoak dira, latinezkoak 3.462 eta gaztela-



niazkoak 5.208. Baserrietar zaharren ahotik jasotako atsotizetako asko gaur egun desagertzeko zorian daude. Euskal Herriko 23 baserrietara egindako bisitaldietan, milaka esamolde ere bildu ditu idazle elgoibartarrak, baina horiek hurrengo argitalpen batean emango ditu ezagutzera. Atsotizei dago-kienez, oraindik hainbat erretratu ari zaizkio eskuetara heltzen, eta urte batzuen buruan 20.000 inguru biltzera iritsiko da. Lanaren garrantzia ikusita, ahalik eta zabalkunde handiena eman nahi zaio, eta horretarako BBK-k 6.000 pta.ko salneurria jarri dio.



Gemma Monrealen oparia Udalari eta Haritz Dantzari Taldeari

Gemma Monreal margolariaren erakusketa inauguratu zen ostiral iluntzean. Erakusgelako hormetan zintzilik zeuden lanak "azken bi urteotan egindakoak" zirela azaldu zuen Gemmak. Ondoren, Haritz Dantzari Taldeak 25 urte ospatzen dituela-eta, Gemmak Muguruzatarren arkuan oinarritutako kuadro bat oparitu zion. Jose Inazio Sarasuak dantza taldeko kide guztien izenean jaso zuen. Bigarren kuadro bat ere eman zuen Gemmak. Oraingoan Gillermo Garate alkateak eta Ana Santo Iaya kultur zinegotziak jaso zuten oparia. Kuadroan Kultur Etxea agertzen da, COITCOS-en egoitza zen garaian hain zuzen. Azkenik, Artazo base-riaren berreraikitze prozesuan laguntzeko asmoa duela adierazi zuen Gemmak. "Kuadro bat oparitutako dut dirubatzeko kanpainan laguntzeko. Ondoren, eurek erabakiko dute kuadroa zozketatuko duten, errifak aterako dituzten,..." . Gemmaren oleoak ikusteko azken eguna azaroaren 29a da.

Gaztaina hereen usainean

Galiza Etxeak 'Festa do Magosto' ospatu zuen joan den dornekan. Eguerdiko 12:00etan, danbolina piztu eta gaztainak erretzeari ekin zioten arratsaldeko 17:00ak arte, antolatzailuek esan bezala, "300 kg gaztaina erretzeko denbora asko behar baita". Eguraldi txarra zela-eta, arazoak izan zituzten danbolina piztuta mantentzeko baina gorabehera txiki hauek kenduta, gaztainerre jaia ederki burutu zen. AtTatsaldeko 18:00etatik aurrera, auzotar eta herritar ugari hurreratzen hasi ziren gaztainak dastatu eta Ribeiro ardo goxoa edateko.



1998-XI-20

• Azaldu da Vickyren Lagunen zozketako lehen saria

Vickyren Lagunek antolatutako zozketako lehen saria 1.996 zenbakia izan da eta dagoeneko zenbakiaren jabeak, Marijo Garmendiak, alegia, jaso du saria. Azken asteotan jaso diren donazioak kontuan izanda, guztira 8.500.000 pta. batu dira. Aita Menni ospitaleko medikuek Vickyren egoerari buruzko balorazioa egin dute eta, euren esanetan, "gauzak bide onetik" doaz. Datozen hiru hilabeteotan tratamendua jasotzen jarraituko du Vickyk Arrasateko ospitalean. Errehabilitazio fisikoari dagokionean, Vicky oinez ibiltzeko gai da, beti ere mnakulekin. Ahozko mezuak, zenbakiak eta bokalak ulertzen ditu eta ariketa aritmetiko errazak egiteko gai da. Azkenik, bere burua garbitzeko, jazteko eta antzerako zereginak egiteko, gero eta independentzia handiagoa lortzen ari da. Vickyren Lagunek eskerrik beroenak luzatu nahi dizkiete "mirari txiki hau" posible egin duten guztiei.

• Ekekei antzeztaldea, Sara herriko antzerki-topaketetan

Asteburuan, azaroak 21 eta 22, Antonio Maria Labaien antzerkigizon eta kultur gilearen omenez, antzerki-topaketak izango dira Iparraldeko Sara herrian. Ipar eta hego Euskal Herriko antzerki taldeek hartuko dute parte, tartean, Elgoibarko Ekekei antzeztaldea, 'Hiltegia' obrarekin. Antonio Maria Labaien euskal egilea omentzeaz gain, hego eta ipar Euskal Herriko Antzerki Elkartearen eta antzeztaldeen arteko harremanak sendotzea eta elkar ezagutzea ere bada topaketen helburua.



'Kultur Errotaik hasiera polita izan zuen

Elgoibarko lurratik esan digutenez, Euskara Elkartearen Topagunearekin batera antolatu duten 'Kultur Errota' egitasmoak "oso hasiera polita izan du". Joan den ostiralean, Kultur Etxeko sotoan izan zen estreinako ekitaldia eta "jende asko egon ez bazen ere, 40 lagun inguru, egon zirenak oso gustura irten zirela uste dugu". Hiru orduko emankizunean musika izan zen protagonista. Hala ere, Iñigo Ibarra markiliarrak mozkor baten bakarrizketa antzeztu zuen eta "benetan ikusgarria izan zen". 'Kultur Errota' ren bigarren emanaldia abenduaren 12an izango da Gaztetxean. Gazte Asanbladarekin elkarlanean, Tapia eta Leturiaren erromerian nahikoa dantza egiteko aukera izango da.

- **Metro karratuak 55.000 pta. balioko ditu Albitariko industrialdean**

Duela pare bat aste jakinarazi genuen bezala, azken plenoak Albitxuriko gunea aisialdirako izatetik gure industrial izatera pasatzea onartu zen. Izan ere, aipaturiko zona benetan aproposa da Elgoibar-ko eta baita eskualdeko industriak ere kokatzeko. Gainera, jendeak aisialdirako bertara joateko ohiturarik ez duela ikusita, alderdi politikoek aldaketa egitea onuragarria izan zitekeela erabaki zuten.

Guztira 192.000 m² izango ditu Albitxuriko industrialdeak eta obrak 1999ko udaberri aldera hasita espero da. Dirudenez, helburuetarika bat hainbat enpresa herri barrutik kanpora ateratzea da eta, dagoeneko, askok azaldu dute interesa, herriko enpresez gain, baita eskualdeko beste askok ere.

Eraikitalco metro karratu bakoitzak 55.000 pta,ko kostua izango du eta kontuan izanik Ibaizartea industrialdean metro karratua 62-65.000 pta. artean dabilela, Albitxuri prezio aldetik nahiko eskuragarria izango dela esan daiteke. Prezio merke honen arrazoia, Udalak lurren %24,5 doan eskaini duela da, 47.000 m² guztira.

- **Abenduaren 16an idauguratuko da Erreminta Makinaren Museoa**

Joan den astean aurreratu genuen bezala, abenduaren 16an inauguratuko da IMHn kokatzen den Erreminta Makinaren Museoa. Ekitaldi berezia izango da eta Jose Antonio Ardanza jarduneko lehendakariak hartuko du parte. Bertan, erreminta makinaren sektorean lan garrantzitsua egin duen hainbat pertsonari omenaldia egingo zaio.

Premia larriko laguntza soziala 33 familiak jasotzen dute

Ongizate sailak 4 milioitik gora inbertitu ditu aurten zerbitzu hau eskaintzeko



San Larazo egoitzan egoterik ez duten nagusiek etxez etxeko zerbitzua dute aukeran.

Elgoibarko Udal Ongizate Sailaren helburuetarika bat, herrian beharra duten familiei laguntza eskaintzea da. Horien artean aipa daiteke premia larriko laguntza soziala. Aurten, esaterako, urtariletik irailera bitartean 33 familiei helerazi zaie aipaturiko programaren laguntza, 4.618.194 pezetako aurrekontuarekin.

1995. urtean 41 familiek jaso zuten premia larriko laguntza eta Udalak 5.605.018 pezetako inbertitu zituen. 1996 eta 1997 urteetan 37 familiengana iritsi zen aipaturiko zerbitzua, 6.045.690 pezetako eta 5.580.444 pezetako inbertituz, hurrenez hurren. Honako laguntza hau era guztietako familiek jasotzen dute, besteak beste, bakarrik bizi diren pertsonak (alargunak, ezkongabeak...), ezkondu gabe elkarrekin bizi diren bikoteek, seme-alabak dituzten eta ez dituzten familiek eta abar.

Etxez etxeko zerbitzua

Ongizate sailak eskaintzen dituen laguntzen artean etxez etxeko zerbitzua aipa daiteke. Izan ere, laguntza hau eu-

ren buruaz baliatzeko gai ez diren gaixoei eskaintzen zaie eta honen bitartez, pertsona bat joaten da gaixoen etxera egunean hainbat orduz laguntzeko. 1998. urtean eta irailera bitartean, 34 gaixok jaso zuten honako zerbitzu hau, 8.194.533 pezetako kostua suposatuz zuelarik. 1995ean 40 gaixo sartu ziren programa honetan eta 14.929.344 pezetako inbertitu ziren. 1996an 43 gaixori zuzendu zitzaizkien etxez etxeko zerbitzua (14.108.323 pta.) eta 97an 49 gaixok jaso zuten laguntza (13.925.698 pta.). Dena dela, diru kopuru hauek ez dira Udalaren esku geratzen oso-osorik; hau da, familiek ere jartzen dute kostoaren zerbateko bat, aurten, esate baterako, 1.329.448 pezetako.

Aurrekoaz gain, drogomenpekotasunen bat izan eta errehabilitatu nahi duenari ere eskaintzen zaio laguntza Ongizate Sailetik. Aurten pertsona bakarrak jaso du laguntza hau 125.252 pezetako eman zaizkiolarik garraio gasteetarako. 1995 eta 96an lau pertsona sartu ziren programa honetan eta 1997an hiru.



Nemesio Ansola:

alaitasuna dago beste inon"

Nemesio Ansolak 79 urte ditu eta eztei-bidaian Madrilen izan eta gero, ez zuen aukera gehiegi izan bidaiatzeko. Duela 10 urte joan ziren estreinakoz Mallorcara eta gero Malagara. Halere, Benidorm-ekoko alaitasunaz maitemindu eta harrez geroztik, urtero bi hilabeterako apartamentua alokatzen dute bertan.

- Duela hamar urte Mallorcara joan zineten.

- Bai. Ordura arte Elgoibar inguruan bakarrik ibiltzen ginan, beste ezertarako aukerarik ez zakagun eta. Baina oin dala hamar urte inguru Mallorcara jun ginan eta gero Malagara eta oso gustura.

Hala ere, idenidorm duzue 7Httinnera.

- Bai. Nere lagun mina dan Jose Mari Arozena Espainia osuan zihar ibili izan da, eta berak esaten dia Espainia osuan ez dauala Benidorm-en dauan alaitasuna.

Maiatza eta ekaina pasatzen dituzue bertan, ezta?

- Bai. Lelengo urtian hotelera jun ginan baina ez zitzakun gustau, ze jateko ordutegi bat dakazu eta beti lotuta zabiz. Oin apartamentua alkilatzen dou, askoz libro ibiltzeko aukeria dakazu. Astian bi aldiz merkatua egoten da eta hara juten gera emazia eta bixok konprak itxera.

- Egun osoa kalean pasatzer, al duzue?

- Ixa egun osua. Goizian jaiki eta pasiau, mezetara jun, 10:00ak aldera hondartzara, gero bazkaltzera, telebisiva ikusi edo siestara jun eta arra-

tsaldian lagunekin edo andria-kin urten... Beti dao zeozer itxeko.

Baita dantza ere, ezta?

- Bueno gu ez gera gehiegi urtetzen gabian, baina nahi dabanatzat demaseko ambientea daol "La calle del koño" bezela ezagutzen dan kalia euskaldunez beteta egoten da eta han dantzia, ligia... danetik dao, baitxa txikiteua ere.

Zergatik deitzen zaio horrela kale horri?

- Berez, Calle Carretera da baina zela hainbeste euskaldun juten geran, kalian ezaguna ikusi eta "koño, hi ere hemen!" asko entzuten da. Horregatik deitzen jako hola, nahiz eta bertakuei gehiegi gustau ez.

- Lagunentza. duak ere prest, dituzu, ezta?

- Bai. Gure-Bide soziedadeko soziva naiz eta askotan preparatzen ditxut afarixak. Benidorm-en ere, lagunak elkartzen gera eta terraza batian jaten dou neuk preparatukua. Oso ondo pasatzen dou eta berrixuta bueltatzen gera Eigoibarrera.



GAZTAROKO UROITZAPEAK

31 fonso ,Gcloso:



A Honso Lodoso 73 urteko elgoibartarra da. **BARRE**nera argazki mordoa besapean hartuta etorri zen, hori bai, gehienak, denak ez esateagatik, txirrindularitzaren ingurukoak; lehiaketak, sari banaketak, Alfonso bera Olanori garaikurra ematen.... Izan ere, Alfonsok betidanik izan du txirrindularitzarekiko zaletasuna, nahiz eta berak sekula bizikletan ibiltzen ikasi ez duen. Bitxia, ezta?

Umetan, beraz, ez zenuen bizikletarik izan.

- Ez. Gure garaian bizikleta aberatsek bakarrik izaten zuten eta besteok begiratzearekin konformatu behar genuen. Oñatin bizi nintzenez, kuadrilako batek bazeukan bizikleta, baina hama-bost lagun ginen eta sekula ez zitzaidan tokatzen niri ibiltzea.

Halere, zaletasuna betidanik izan duzu, ezta?

- Hori bai. Beti gustatu izan zait izugarri txirrindularitzaren ingu-

ruko giroa. Oñatin zaletasun handia zegoen eta orduan hasi nintzen lasterketak ikustera joaten.

- Elgoibarko Lagun Taldea Txirrindulari elkartearen sortzaileetarikoa izan zinen.

- Bai. Semea asko ibiltzen zen bizikletan eta berak esan zidan taldea sortu eta presidentea izan behar nuela. Pentsa, txirrindulari taldeko presidentek ez zekien bizikleta gainean ibiltzen! Gero, Gipuzkoako Federazioko presidentek laga zuenean, neu nintzenez herrietako eikarteetako presidenterik zaharrena, ni izendatu ninduten hainbat hilabete-rako.

Oso popularra omen zinen, gainera.

Bai. Han eta hemen ibiltzen nintzen beti, lasterketa batetik bestera txirrindulariekin eta jende asko ezagutu nuen. Omenaldiak ere egin zizkidaten Ormaiztegin eta Ondarroan. Ormaiztegiak kurio-soa izan zen. Afaria zegoela eta han joan ginen emaztea, semea

eta hirurok, baina ez genekien non zen eta bueltaka ibili eta gero ez genuen lekua aurkitu, beraz, asper-asper eginda, Elgoibarrera itzuli ginen. Hurrengo goizean, etxeko atea jo zuten eta zabaltzean, emaztearentzat lora sorta bat eta niretzat trofeoa eskuetan agertu ziren Ormaiztegiak, ea nolatan ez ginen afarira azaldu galdezka! Dirudienez, lur-azpiko arandegiren batean izan zen afaria eta guk hura topatu ez, eta haiek gu ikusi ez.

Indurain ere ezagutzen duzu, ezta?

- Bai. Hainbeste urtez txirrindularitzaren munduan ibilita, jende asko ezagutzeko aukera izaten duzu eta horien artean izan nuen Indurain ezagutzeko zortea. Kirolari aparta izateaz gain, pertsona bezala ere ezin hobea da, oso mutil jatorra. Olano ere ezagutzen dut eta ona den arren, Indurainen mailara iristea kostako zaio. Indurain izan da onena!



Argazkia 1983 urtean dago aterata Eigoibarko ziklokros lasterketa batean. Olano gazteak irabazi zuen eta saria Alfonso Lodosok eman zion.

ETA


Alargunduz gero, ezkonduko al zinateke berriz?

Garai batean, lehenengo senargai edo emaztegaiarekin ezkonzen zen jendea. Gaur egun, egoera oso bestelakoa da eta ezkondu eta gero gauzak ez badira ondo ateratzen, askok nahiago izaten dute banatzea. Edozein modutan, hilabete honetan gure herriko edadetuei galdetu dieguna ondokoa izan da: ea alargun geratuko balira, berriz ezkonduko iratekeen.



Vicenta Elustondo

Nik ez dakit zer ingo neukien. Oin artian ondo bizi izan naiz eta behin edade batera ailegauta, onena trankil bizitzia izango tzake, nahiz eta danerakua ikusten dan. Neri gizon ona tokau jata eta konfome nao.



Pedro Salinas

Ezetz uste dut. Behin alargunduz gero, ez dut uste emakumeren baten beharra igarriko nukeenik, badakit bazkaria egiten eta bakarrik ondo moldatuko nintzateke. Lehen ere, urte mordoan lanean egon eta gero, jubilatutakoan ezer egin gabe bizitzera ohitu behar izan nuen. Fase guztietara ohitu beharra dago.



Francisco Lobete

Ez dut uste berriz ezkonduko nintzatekeenik. Adin honetan maitasunak ez du lekurik, horiek gaztetako kontuak dira, ez gureak. Nahiago dut bizimodu lasaiagoa izatea, maitasunak ematen dituen arazorik gabe.



Anuncia Quintas

Ez! Senarra daukat eta ezkongabea baintz ere ez nintzateke ezkonduko. Adin honekin, gizonetakoek beraien interesetarako bakarrik nahi gaituzte ondoan. Ehun gizonetakoek artetik bat aurkituko duzu behar modukoa. Gazteak, beharbada, beste era batekoak dira baina gazte batek ez du gure adinekorik nahi eta, egia esan, nik ere ez dut gazterik nahi.



Paula Gallastegi

Ez. Ni gazte geratu nitzan alargun eta ez naiz berriz ezkondu, ezta maitemindu ere. Gizona, bat euki bihar da bizitzan. Ez naban beste gizonik bihar onduan. Behin bizitza moldatu ezkerok, ohitxu itxen zera eta semiak ere tartian daudenian...



aholku Alargunentzat

Bitzta benetako nobela bat bezalakoa da, hau da, kapituloz osatuta dago eta bata pasa eta gero, hurrengoa dator, bata bestearen jarraipena da eta guztiak gogoratu behar ditugu eta kontuan izan.

Alargunek, bizitzako beste edozein unetan baino gehiago behar dute inguruko jendearen maitasuna eta berotasuna. Familian babesa eta kariñoa topatu behar dute eta adiskide multzoa mantendu eta zabaldu.

Alargundu eta gero indartze pertsonala izaten den fase batean sartzen gara eta onartzen eta aprobetxatzen jakin behar da. Emakumeen kasuan, emazte papera bizitzan dagoen bakarra ez dela ikusi eta beste hainbat arlo ere lantzeko aukera badagoela ikusi behar da.

Emozioak positiboki bideratu behar dira.

Alarguntzean helburu berriak era garbi eta errealista batean ikusi behar dira eta aukera desberdinak aztertu eta aukeratu.

Gure seme-alabak hazi diren pertsona heldu eta independente bezaia ikusten ditugunean izango gara pertsona helduak.


Seme-alaben interes eta aurriritziek ez dute alargunen bilakaera pertsonal eta soziala ukatu behar. Elkar errespetuan eta ezagutzan oinarrituz jokatu behar da.

Alargunak familiarekiko autonomia baloratu eta zaindu behar du.

Gainetik kendu behar dira alargunek sarri izan ohi duten irudi triste eta koittadua.

Alargun geratu denak gertatu zaionaren ostean daukan alde positiboari begiratu behar dio, txarra den guztian ito beharrean.

ETIA · ERREZETIA



Serafin Vlogado Patatak errioxar erara

OSAGAIAK:

Patata, txorizo pikantea, irin apur bat, txerri-sahieski adobatua, piper txorizeroa, berakatz, kipula eta oliba olio.

PRESTAKETA:

Lehendabizi patata zuritu eta zatiak egin (patata apurtu egin behar da). Lapiko batean olio jarri eta txorizoa bota. Beste ontzi batean ura ipini eta sasheskia 15-20 minutuz egosten jarri, piperrautsa bota dezan. Ondoren, sasheskia atera eta txorizoa dagoen lapikora aldatu. Patata gehitu eta piska batean oliotan egiten laga. Hurrengo pausoa lapikoari ura botatzea da. Patatak urez estalita geratu behar du. Su baxuan 20 bat minutuz eduki. Ura agortzen bada, ur bero piska bat bota. Zartagin batean berakatz eta kipula txikitua oliotan gorritu. Inn piska bat gehituko diogu, apur bat loditzeko. Beste ontzi batean piper txorizeroa egosten jarri eta, ondoren, azala kendu. Geratuko zaigun haragia, berakatz eta kipulari gehituko diogu. Ondo nahastu dena eta patata lapikora bota (patata egosi baino 8 bat minutu lehenago egin behar da). Sasoi honetarako plater aproposa da. Bigarren platera haragia edo okela izan daiteke.



65 urteko elgoibartarra da Pedro eta urte horietatik asko Elgoibarko Musika Bandari eskaini dizkio. Mutikotan, 15 urte zituela sartu zen Bandan. Aurten, 50 urte bete direnean, omenaldia eskainiko diote Santa Zezilia eguna dela-eta egingo den ospakizunean. Guk, nusika zein Bandaren inguruan bizi izan dituen uneez hitz egiteko ekarri dugu gure artera.

"Musika sakratua da niretzar"

— Nola sartu zinen musika munduan?

Nik musikarekiko zaletasuna oso txikitatik izan nuen. Elgoibarren horretan trebatzeko beste lekurik ez zegoenez, Bandan sartu nintzen eta bertan ikasi nuen flauta jotzen. Metodorekin ikasi nuen, orduan hemen ez baitzegoen irakaslerik. Donostiara joan behar zen kontserbatorioan ikasi nahi izatekotan, baina guretzat hori oso zaila zen.

— Zergatik aukeratu zenuen flauta?

- Kasualitatea izan zen, flauta falta zen eta niri ongi egokitzen zitzaidanez, hori hartu nuen. Lehenengo flauta jotzen hasi nintzen eta geroago flautina. Hauek izan ezean, oboea edo klarineta jotzea gustatuko litzaidake.

—Zer aldaketa ikusi dituzu 50 urte hauetan Bandan?

- Aldaketa handiak izan dira eta denak onerako, gainera. Orain sartzen diren guztiak kontserbatoriotik datoz. Solfeoa ikasten 5 urte egiten dituzte, guk, ordea, bi urte eginez gero nahikoa, hori da abantailarik nagusia. Lehenago musikari onak bazeuden arren, orain prestakuntza hobea daukate. Hasierako garaietan jotzea orain baino zailagoa zen, Lehen igandero "Banabliak" izaten ziren eta gaur egun hilean kontzertu bat baino ez dugu izaten. Garai hartan, beroa zein euria egin, berdin-berdin jo behar izaten genuen. Orain ohitura hau eta prozesioarena berreskuratu egin dira eta oso polita izan da.

—Zer da musika zuretzat?

- Musika dena da, sakratua den zerbait. Egunean ordubete edo ordu eta erdi eskaintzen diot.

—Zein musika pieza duzu gustukuen?

- Igandean joko dugun *Gillerto Tell* oso polita da eta baita Flautinaren Folklore ere. Bietan solista aritzen naiz.

—Aurtengo Santa Zezilia eguna berezia izango al da zuretzat?

- Urtero ospatzen dugu Bandarekin. Egun horretako kontzertua berezia izaten da, hobea, obra berriak sartu ohi ditugu beti. Bazkaria ere egiten dugu eta aurtun meza izango da. Aurtengoa, noski, berezia izango da, baina pasatu artean Iainoetan nagoela esan dezaket. Dena dela, aurrez eskertu nahi nieke antolatzaileei omenaldi hau prestatu izana.

—50 urte hauetan izango zenuen anekdota bitxirik Bandan.

- Orain dela 40 urte inguru, Santa Zezilia egun batean, plazan geunden kalejira has-teko zain. Garai hartan, aste-guna izanez gero, jai egiten zen. Bandako partaide bat txafliaguak botatzen hasi zen, besapean paketea zeukan eta pakete guztiak su hartu zion. Txafliago guztiak airean ateratu ziren eta gu arkupeetan zorde behar izan ginen.

—50 urte igaro dira. Noiz arte jarraitzeko asmoa?

Enbokadura ondo edukiz gero, beste ardurarik ez daukat, bertan dago de guztia. Ahal dudan bitartean jarraitzeko asmoa dut.

Irati Agirreazalegi

PEDRO REG

EESTEK ESANA

"Pertsona ona, jatorra, leiala eta musiko bikaina da" JOSE ANTONIO OSORO, Musika Bandako zuzendaria.



alaibartik



Kris Finck
Aibizt4

matza Londresen.

Hasieran, Ingalaterrara joan diren beste asko bezala, etxe batean au-pair egon zen. Umeak zaindu eta etxekolanak eginez, diru apur bat lortu eta ingelesa ikasteari ekin zion. Laster, beste lan baten bila hasi zen. Londresen pare bat urte bazeramatzan bertako ospital batean lana topatu zuenerako. Garbiketa lanak egiten hasi zen baina traturako esku ona zuela ikusita, ospitaleko arduradunek erizain laguntzaile izatea eskaini zioten. Ikastaro bat egin eta lan benian hasi zen. Jakin dugunez, benetan gustura dago.

"Londres hiri zoragarria" iruditzen zaio Kristinari. "Denetik dauka, nazionalitate askotako jendea bizi da,...". Gaur egun, Nigeriako lagun batekin bizi da.

Elgoibarrera urtean behin baino ez da etortzen, baina hileroko etxekoe-kin hitz egiten du telefonoz. Honez gain, BARRENen harpideduna ere bada, eta honi esker, Elgoibarko lagunak 'ikusteko' aukera izaten du, paperean besterik ez bada ere. Bere ama hizkuntza, euskara, ederki mantentzen du, nahiz eta Londresen hainbeste urte pasatu ondoren, azen- to edo entonazio atzerritarra zertxobait igartzen zaion.

Alow
VIPJES **nalor** BIDAIAK
3113RO EXPCSS
bidaia agentziak
babestutako atala
Foruen pfaza, 3
Tel: 943 74 39 12

— Igoibartar honek orain dela 8 bat urte Elgoibar utzi eta Ingalaterra aldera joatea erabaki zuen. Gaur egun 30 urte dauzka eta esan bezala, 8 urte dar-

Casto Daegi Arrieta

(1896-1977)



- 1896ko maiatzaren 22an jaio zen Arrateko Sakristauko baserrian. Aita bertakoa zen eta ama Elgoibarko Lerun Txikikoa. 4 anai-arreba ziren, bera gazteena.
- Arrateko apaiz titularra Castoren osaba zen eta harekin egin zituen lehenengo ikasketak.
- Gazte denbora etxean laguntzen eman zuen. Aita gazte hil zen eta familia guztia Eibarko Urkusua kalera joan zen bizitzera. Soldaduzka Burgosen egin zuen, zalditeriako konpainian.
- Anaiak elkartu eta 'Iraegi Hnos.' tailerra sortu zuten autoen osagarriak eta jasogailu hidraulikoak egiteko.
- 1925eko azaroaren 25ean ezkondu zen San Andresko elizan Maria Zamakolarekin. Bi seme-alaba izan zituzten, mutila eta neska.
- 1936ko gerratean tailerra suntsituta geratu zen. Errepublikanoen bandoan ibili zen rnaisu armagin 'Batallones Vaseos' izeneko talde batean.
- Itzuli zenean, erabat suntsituta topatu zuen Eibar eta 1941. urtean Elgoibarrera etorri zen familiarekin. Enrrepresentante lanetan ibili zen komisiopean, urte onak bizi izan zituelarik.
- Gizon hizlari, atsegin eta popular hau 'Memorial Juan Mugerza' krosaren sortzailea izan zen Don Tomas Zubizarreta medikua eta Paeo Salaberriarekin batera. CIub Deportivo Elgoibarko zuzendaritzakoa izan zen. Kirol zaletu amorratu hau beti zegoen laguntzeko prest, batez ere euskal kimIen arloan.
- Odol Emaileen urrezko intsignia jaso zuen urte askoan odola eman zuelako.
- Benetan sentikorra, genio bizikoa, borondatsua, sinesmenduna eta familia girokoa zen.
- 1977ko uztailearen 12an hil zen 81 urterekin.

Juanito Gorostiza

gale
JIATETXEA

CS anth £11.zici eyuna; d
.. 19enclued) 13

gancie eyuerccian za.6zU
iirenu i6erezia
yorofelzd'a

Nafarroa pIaza ELGOIBAR - Te1.943 74 12 30

Cordon Vilarchao;c.b
DEKORAZIOA

MOKETAK, KORD(O BARN1ZATUA, PVC eta PARETAK, SINTASO1A, ZOLU 1NDUSTRIALAK, GORT1NA BERTIKALAK, GOTELE, ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORREAN.

San Roke , 7 behea.
Tel: 943 74 28 74-74 05 70



ste honetako erretratu
Jose Angel Zubiaurrek
 ekarri digu. Jakin dugu-
 nez 1948. urtekoa da, eta
 ikus daitekeen bezala, Sig-
 ma enpresaren aurrean atera-
 ta dago, Ezkerretik hasita,
 hona hemen nor diren argaz-
 kikoak: **Angeles Azkue, Ame-
 rikako senitarteko bat (t), Estanis
 Azkue (t) eta Amerikako beste seni-
 tarteko bat (t).** Umeak **Jose Miguel
 Amostegi** eta **Jesus Mari Amostegi**
 anaiak dira.

Amerikarrak Elgoibarko familia bi-
 sitatzera etorri ziren eta, itxura denez,
 argazkian ikusten den auto dotorea eu-
 rek ekarritakoa da. Argazkia Sigma lan-
 tegia bisitatzera joan ziren eguneko da.

Argazki **honen bueltan**, Amerikako
 senitarteko hauen nondik norakoa azal-
 duko dizuegu. Azkuetarren seme gazte-
 ena zenak, Juan Azkuek, gerra garaian
 Amerikara egin zuen alde. Bertan neska
 bat ezagutu eta ezkondu egin ziren. Ar-
 gazkiko amerikarrak Juanen emaztearen
 gurasoak dira. Juan Azkue duela bi urte
 hil zen 80 urterekin.



"Fulbctian askotau eitxen da peger"



Iker Beitia

- **Adina:** 27 urte.
- **Ba al dakizu zenbat partidu jokatu dituzun Haundin?** Buruz kalkulau dot eta 300 inguru izango dia. Gustauko jatan zehatz jakitzia.
- **g Une bereziren bateko kamiseta gordeta al duzu?** Bai, hiru. Lelengo igoerakua, Mintxetan igo ginanekua eta kontrarixua izan zan ekipo batena.

- Futhola laga hehar omen duzu.

- Medikuek esan diate bizitza normala eitxia nahi badot, futbola laga biharko dotela. Ezkerreko orkatilan kartilagua gastauta dakat eta hazurrak euren artian jotzen dabe eta gastau eitxen dia. Zenbat eta gehixo jokatu txarrao izango da. Azkenengo partidua oin dala 15 egun jokatu naban Burgosen. Kanbixua eskatu bihar izan naban, ze min handixa nakan.

- Esan al diezu agur taldekideei?

- Bai. Nahiko gogorra izan da danontzat, ze kapitana eta taldeko beteranuena nitzan. Hala ere, ez dot erabat lagako. Etxeko partiduak ikustera juteko asmua dakat.

- **Harmailetan, zelaian baino gehiago sufrituko al duzu?** Baietz uste dot, aurten batez ere, ze ekipuan nao sartuta baina ez dot jokatu.

- **Klubekoek ordezkaria izateko proposamena luzatu dizute. Zer egiten du ordezkariak?** - Partiduetan egon, fitxak eruan, arbitrueri kaso ein... Entrenadore ikastaro bat eitxeko ere esan diate baina sekula ez jata gustau. Gaztiekin hasten zera baina gero beti nahi dozu gehixao eta beitxu Kike Ormaetxea zela dabilen oin! Lo ere ezin dau ein.

- **10 urte Haundin. Gauza onak eta txarrak ere egongo dira.** - Onena da lagun asko ein ditzudala. Urtero lau jokalaria berri etortzen dia, direktibia ere aldatu eitxen da, lau entrenadorekin egon izan naiz... Jende beni asko ezagutu dot eta gure ekipuan bestietan baino askoz ambiente

hobia dao. Unerik onenak aszenso bixak izan diaz. Bat Lerunen, Arakisekin, eta bestia oin dala bi urte. Neretzako espezialau lelengo igoeria izan zan. Partidu gutxik jokatu nitxun, gaztiaua nitzan, igotzen gendun lelenengo aldixa zan... Bigarrena ere oso ondo egon zan. Gogoratzen naizen bakoitzian emozionau eitxen naiz.

- Une txarrak ahaztu egiten al dira?

Gutxio gogoratzen zera. Haundin nauan lelengo urtian, gogoratzen naiz Kopako partidu bat penaltixetan galdu gendula. Askotan eitxen da negar. Gero berehala ahazten jatzu baina momentuan gogorra da.

- **Lortuko al du Haundik 2Bn mantentzea?** Aurten iaz baino zailaua izango da. Jokalari onak, kanpotarrak asko, beste ekipo batzuetara jun dia. Jaistia gogorra izan leike baina urtian zihar ikusten zuaz gauzak txarrera duazela eta asimilatzen zuaz. Neretzat hori ez da frustrantia. Jokalari batentzat frustrantia da partidu batera jun eta ez zaudela konbokautu ikustia.

- **Bai Lerun eta bai Mintxeta, biak ezagutu dituzu.** - Lerun ezagutu dogun jokalarixentzat Mintxetara aldatzia gogorra izan zan. Nahiko gaizki pasau naban nik. Ekipua hara zauan einda. Berrixak, aldiz, hasieratik ohitxu dia Mintxetan. Afizio aldetik, txarrerako izan dala uste dot. Hala ere, alde onik ere badaka, ze oin talde morduak entrenatzeko eta jokatzeko aukeria daka. Honi esker Klubian gaztien taldiak jun dia sortzen.

ESK@LARTEKG KIROLAK

AGENDA Azaroak 21 6. 'ardunaldia)

SASKIBALOAIA (Herri Eskolan)

II Benjamin mutilak ■

10:00 Ikastola B Mendaro A

11:00 Herri Eskola A- Ikastola A

11:30 Ikastola C - Herri Eskola B

12:30 Pilar A- Pilar B

g Benjamin neskak g

10:30 Ikastola B- Pilar B

12:00 Pilar A- Ikastola C

ESKUBALOAIA (Kirolegian)

■ Alebin neskak ■

9:00 Ikastola A- Pilar A

9:45 Jauja D Jauja E

10:30 Ikastola C - Pilar B

11:15 Herri Eskola - Ikastola A

12:00 Ikastola B- Deba Horiak

ESKUBALBIA pastolan)

Alebin mutilak ■

9:00 Ikastola C- Pilar B

9:45 Mendaro B- Jauja B

10:30 Mendaro A- Jauja A

11:15 Ikastola B- Pilar A

12:00 Deba Urdinak Deba Berdeak

FUTBOLA (Mintxetan)

■ mutilak ■

11:00 Ikastola - Pilar B

11:45 Insti A Deba

12:30 Insti B- Pilar A

■ Inlanlil neskak ffi

10:00 Mutriku - Ikastola A

10:45 Ikastola B - Insti

11:30 Ikastola C - Pilar B

12:15 Ikastola D- Pilar A

ESKOLARTEKG KIROLAK

EMAITZIA1K1

5. 'ardunaldia

SASIOBALOAIA

g Benjamin mutilak -

Herri Eskola B - Ikastola A

Pilar A 0 - Ikastola 16

Pilar B - Ikastola B 16

Mendaro A2 Herri Eskola A 4

g Benjamin neskak -

Ikastola A Ikastola B 12

Pilar B 2- Pilar A 13

ESKUBALOAIA

Alehin mutilak ■

Jauja B 3- Ikastola G 16

Deba Berdeak 3- Jauja A 4

Deba Urdinak 5- Pilar A 2

Herri Eskola 3- Deba Gorriak 6

Mendaro A 1 Ikastola B 9

Ikastola A 10 - Pilar B 5

E Alebin neskak ■

Jauja E 2 - Ikastola C 4

Ikastola B 5 - Jauja D 6

Pitar A12 - Deba Horiak 3

Ikastola A 2- Pilar B 17

FUTBOLA

■ Infantil mutilak ■

Insti B 17 - Deba 1

Pilar A 7 - Insti A 1

Ikastola 6- Pilar B 1

■ Infantil neskak ■

Mutriku 2- Ikastola B 2

Ikastola D 5 - Insti 1

Ikastola 1- Ikastola A 2

Ikastola E 1 - Pilar B 0

Jose Mari Feridndez erraz nigultu zen Karakatera V.Igoeran

Aldai eibartarrak, elgoibartarraren arerio nagusiak, ez zuen parte hartu



12 partehartzailak lasterketa atnaieran. Aurten ez da neskarik egon.

Sailkapena

| | |
|----|--|
| 1 | Jose Mari Fernandez 31'25" (Elgoibar) |
| 2 | Enai Bengoa 31'45" (Eibar) |
| 3 | Jose Antonio Otxoa 35'53" (Eibar) |
| 4 | Igor Etxaniz 36'08" (Elgoihari) |
| 5 | Abin Zenarruzabeitia 36'47" (Elgoibar) |
| 6 | Abi Oliveira 36'50" (Elgoibar) |
| 7 | Artur Atrieta 37'36" (Elgoibar) |
| 8 | Enai Fernandez 37'38" (Elgoibar) |
| 9 | Igor Fernandez 38'53" (Elgoibar) |
| 10 | Jose Antonio Agote 41'01" (Elgoibar) |
| 11 | Ramon Ortuoste 41'32" (Elgoibar) |
| 12 | Enai Fernandez 46'48" (Elgoibar) |

12 korrikalarik hartu zuten parte aurreko zapatuan izan zen Karakatera V. Igoeran. Hauetatik 9 lagun elgoibartarrak ziren eta gainontzekoak eibartarrak. Eguraldiak ez zuen batere lagundu eta euripean eta laino-pean egin behar izan zuten partehartzailak ibribide osoa. Aurrez espero zenaren kontra, ia azken irabazlea izan zen Aldai eibartarrak ez

zuen parte hartu. Hala ere, Karakatera saitaka igotzeko beti sortzen du ikusmina eta menditontorren 25 lagunetik gora bildu ziren. Karakateko buzoira iritsi zen lehenengo partehartzaila Jose Mari Feridndez Suso izan zen. Honen atzetik bi eibartar iritsi ziren eta ondoren Iriigo Etxaniz, bigarren elgoibartarra.

• Kopako finala jokatu du Haundik, Lemoari 5 eta 1 irabazi ondoren

Pasa berri den asteazkenean, Haundik 5 eta 1 irabazi zuen Lemoaren aurka jokatu zuen finalaurdenetako partiduan. Joaneke norgehiagokan elgoibartarrek 2 eta 0 galdu bazuten ere, zailtasunei aurre egiten badakitela erakutsi zuten. Elgoibartarrak gogor atera ziren zelaira. Lehenengo zatian, Lemoako jokalarik bati txartel gorria erakutsi zioten eta bigarren zatian, Haundik laugarren gola sartu zuenean, bizkaitarrek iparra galdu, eta 3 jokalarik gutxiagorekin geratu ziren, 7 jokalarirekin hain zuten. Azkenean, Haundik 5, Lemoak 1. Garaipenari esker, Haundik finala jokatu du Real Unic5n-en kontra. Finala bi partidutara jokatu da eta elgoibartarrek proposatu dituzten data abenduaren 24a eta 31 dira.

• Igeriketa Eskolakoak hasi dira konpetizioan

Azaroaren 8an, Igeriketa Taldeko infantil eta kadete mailako 8 igerilarik Eskolarteko Igeriketako Ligan parte hartu zuten Oñatin. Denek lortu zuten markak hobetzea. Datorren asteburuan, Legazpin jokatu den torneoan, benjaminak 50 metro bizkarrean arituko dira eta alebinak 100 metro estilo eta 100 metro bizkarrean.

Bestetik, aurreko asteburuan, Elgoibarko 6 neska-mutuez osatutako waterpolo taldeak Azpeitiko txapelketan parte hartu eta irabazi egin zuen. Martxoan bigarren jardunaldia izango da eta finala, berriz, maiatzean. Aurten, Federazioak estreinakoz antolatu ditu waterpolo jardunaldiak. Esan bezala, bi saio izango dira urtean zehar eta asmoa da igeriketa lagatzeotan diren edo lagata duten igerilariek waterpolo praktikatzen hastea.

EMAITZAK

Futbola

HAUNDI1 - Binefar 1
Kilimon 0- Elgoibar 2 (1. erreg.)
Pedrusko 4- Anluffia 1 (2. erreg.)
Amorebieta 4- Elgoibar 0 (1. N. jub.)
Beraun 1- Tour 3 (110.)
Elgoibar 4 - Aloitamendi 0 (Kad.)
Tolosa 0 - Elgoibar 1 (In1.)
Urki 0 - Elgoibar 12 (Neskak)
HAUNDI 5 - Lemaia 1 (Kapa)

Eskubaloia

Galdakaa 15 - IMS Elg. 24 (Senior neskak)
Unceta Elg. 19 - Arrate 5 (Jub. nes.)
Pagoaga Elg. 16 - Arrate 20 (Kad. nes.)
IMH Elg. 27 - Hondarribi 24 (Senior mul.)
Arrate 15 - Tecnomeca Elg. 10 (Kad. mul.)
Arrate 32 - Pneumax Elg. 20 (Jub. mul.)

Areto Futbola

Opel Arregi 4- Zur Ta Lur Elg. 4 (1. maila)
Moulinex 7- Zur Ta Lur Elg. 2 (Auton.)

Futbitoa

Menisco 1- S. Braga 27
Aizkora Mendibil 3 - PSK 3
Aide Globun 2- Lojantzi 8
Los Herminios 4- Berrogei Duro 4
Los Peñaskos 5- Kunta Kinte 1

Idarraga Kafeak 2. saria

| | | |
|--------------------------------------|-----------|----------|
| Haundiko jokalarierregularrena 98/99 | JOKALARIA | PIJNTUAX |
| 1- Eneko | 21 | |
| 2- Beitia | 18 | |
| 3- Iker Leonardo | 15 | |
| 4- Aitor Trebillo | 15 | |
| 5- Txasio | 10 | |
| 6- G. Leonardo | 9 | |
| 7- Elkoro | 9 | |
| 8- Igor | 7 | |
| 9- Madina | 7 | |
| 10- Diaz | 7 | |
| 11- Muguruza | 6 | |
| 12- Loren | 5 | |
| 13- Caro | 5 | |
| 14- G. Lazarobaster | 1 | |

AGENDA

Areto Futbola, Kiroldegian

Ostirala, 20
22:10 Zur Ta Lur Elg. - Lauburu (1. maila)
23:10 Zur Ta Lur Elg. - Inbarrondo (Auto.)

Futbitoa, Kiroldegian

Igandea, 22
9:00 Aide Globun - Aizkora Mendibil
10:00 PSK - Los Herminios
11:00 Berrogei Duro - Los Perlaskos
12:00 Kunta Kinte - Menisco
13:00 Lojanzi - S. Braga

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 21
16:00 Tecnomeca Elg. - Bidasoa (Kad. mut.)
17:30 Pneumax Elg. - Bidasoa (Jub. mut.)
19:00 IMS Elg. - Pulpo (Senior nes.)

Tenisa, IMHko pistan

Larunbata, 21
15:00 Golzon de Landaluze-Aguslin Blanco
15:45 Ander Oriederra - Luis Garcia
16:30 Alberto Alberdi - Joseba Carmona
17:15 Juan Carlos Alonso - Gelsa Dominguez
18:00 Santiago Cobos - Jorge Araruz
18:45 Abel Hernandez - Ricardo Iturbe
Igandea, 22
10:00 Javier Ayerra - Alberto Goenaga
10:45 Alberto Garnez - Martin Egea
11:30 Nicolas Berbel - Xabier Castaftares
12:15 Andres Iturbe - Zelai Garcia
13:00 Jhony Taborcia - Antonio Alvarez

Irlabarni osorako musika ekitaidiak antolatu dira Santa Zeziliaren omenez

Musikeskolak, Parroki eta Itxaropena abesbatzek eta Udal Musika Bandak kontzertu bana emango dute



Udal Musika Bandaren omenaldia jasoko du Pedro Regilek (eskumako lehenengo) domekan 50 urteko lanarengatik.

Santa Zezilia Eguna azaroaren 22an da baina herriko musika elkarteek asteburu osoan ospatuko dute zaindarien omenezko eguna. Hasteko, gaur, hilak 20 (ostirala), Inazio Bereziartua Musikeskolako 120 ikaslek, Santa Zeziliako kontzertu berezia emango dute Herriko Antzokian, ituntzeko I 9:30etik aurrera. Korala, akordeoia, txistua, flauta, kita-

lako arduradunek esan digutenez, "estreinakoz egingo dugu aurten ziurtagiribanaketa eta gure asmoa urtero antolatzea da, Santa Zeziliako kontzertuaren bueltan". Kontzertuaren aurretik, arratsaldeko 19:00etan hain zuzen, Musikeskolako Gazteen Bandak kalejiran zeharkatuko ditu herriko kaleak giroa sortze aldera.

rra, klarinete hirukotea, saxofoi taldea, akordeoi orkestra eta Gazteen Bandak hartuko dute parte Herriko Antzokian izango den emanaldian. Amaieran, oinarrizko maila gainditu duten ikasleei (45 gutira) ziurtagiriak banatuko zaizkie. Musikesko-

Bihar, hilak 21 (zapatua), herriko bi abesbatzek kontzertu bana emango dute. Arratsaldeko 18:30ean, Eliz abesbatzaren emanaldia izango da Parrokian, eta 19:45ean, mezaren ostean hain zuzen, Itxaropena abesbatzak bere saioa eskainiko du Udaletxeko arkupeetan.

Pedro Regil-i ornenaldia

Domekan, Dultzaineroen eta Musika Bandaren kalejiraren ostean, meza izango da hildako bandakideen omenez. irteran Haritz Dantzari Taldekoek aurrerakua eskainiko diote 50 urtez Bandan aritu den Pedro Regil tlautajoleari. 12:30ean, Udal Musika Bandak kontzertua emango du Herriko Antzokian ondorengo egitarauarekin: *Francisco Anton, Guillertno Tell, Lau euskal abesti, Highlights fmn Chess* eta *Czardas*. Kontzertuan zehar, Pedro Regilek omenaldia jasoko du Bandakideen eskutik. Egunari behar bezalako amaiera emateko, bandakide guztiak bazkari baten bueltan elkartuko dira Karakate elkartean.

Hasier Etxeberria, Irun Hiria literatur sariaren irabazle

Elgoibartarrak 1.200.000 pta. jaso ditu 'Arrainak ura baino' eleberriari esker

Trungo Udalak eta Kutxa Fundazioak antolatutako Irun Hiria 29, Literatur Saria (1.200.000 pta. eta garaikurra) irabazi du Hasier Etxeberriak "Arrainak ura baino" eleberriarekin. Kazetari eta idazle elgoibartarrak oso pozik dagoela adierazi digu, "sekula ez zaude seguru idazten duzunaz. Ez dakizu txorakeria bat den ala badagoen beste zerbait eta horrelako saria irabazteak, epaimahai baten onspena jasotzeak, niretzat asko balio du". Azken batean, Etxeberriaren hitzetan, "Irun Hiria, Espainiako Planeta sariaren parekoa dela esan daiteke, bai diru aldetik eta baita tradizio handiko lehiaketa delako ere". Besteak beste, Bernardo Atxagak eta Joseba Sarrionaindiak irabazi izan dute sari hau. Hasierrek liburua idazten amaitzen duenean, lan horrekin zer egin pentsatzen du, "eta okinek bezala, guk ere lana errenta-



Hasier Etxeberria elgoibartarra Hendaian bizi da gaur egun.

bilizatzeko era topatu behar dugunez, lehiaketetara aurkeztea da aukera bat. Azken batean, irabazteak errekonozit-

mendua ezezik dirua ere ematen baitu". 'Arrainak ura baino' eleberria maitasun istorioa da, "Simon Azkue izeneko ginekologo ospetsu bat maitasunez zorutzen da eta agerian geratzen dira gaur egungo gizonen gabeziak. Ironia, umorea eta abar erabiliz, nik uste dut nire belaunaldiko mutil-gizonen barre egingo dutela". 'Karramarroaren aztarnak' izan zen Hasierrek argitaratutako azken ipuin-liburua, besteak beste Gabriel Aresti eta Julene Azeptitia lehiaketetan sarituak izan ziren ipuinak biltzen dituen. 'Arrainak ura baino' eleberriarekin gustura geratu da elgoibartarra baina, halere, Cortazarren esaldi baten bidez adierazi digunez, "idazleak egin behar duena da arku tentsatu, gezia ondo jarri, apuntatu eta bota. Hortik aurrera, ez dago egilearen esku irakurleak gezia nola jasoko duen".

jur on zenar



LT1 E.P LBI

IJ

1 - Merezi al du bizitza? Eta Mendaron hizitza?'- Bai, gauza txarrez aparte, onak ere badaude eta gauza onetaz disfrutatzen merezi dau bizitzia. Mendaro gustatzen jata bizitzeko, ze lasaitasuna dao eta juergarako Elgoibarrera edo beste nonbaitxera jun zaitzezke.

2 Eutanasia praktikatu al zenuke familiako batengan?' - Bai, egoera oso txarrian badao eta ez bada irtenbiderik, bai.

3 - Hil eta gero?' - Ez dot uste ezer daonik baina ez diot buelta gehixegi ematen.

4 - Lehenengo ni eta gero besteak. - Lelengo zure buruari begiratu bihar diozu baina bestiena ere kontuan eukitza.

5 - Nori kontatzen dizkiozu arazoak?' - Ez naiz kontatzekua. Gorde eitxen ditzut.

6 - Zein da zure bizitzako ambizioa? Eta bizioa?' Ambiziva ondo bi-trankil eta ahalik eta arazo gutxienekin. Biziva, kirola.

7 Sinesten al duzu politikan? Emango al zenuke botorik?'- Bueno... gehixegi igual ez, hala ere, kaso itxen diot eta badakat gogua 18 urte euki eta botua emateko.


8 - Noiz joan zinen azkeneko manifestakli batera?' - Azkenengo aldiz aste honetan, insumisivan alde, Elgoibarren.

9 - Euskalduna naiz eta harro nago?' - Bai, nik uste dot defendatzeko moduko lema bat dala.

10 - Zerk galeratzen dizu loa?' - Normalian ondo itxen dot lo.

11 - Gaztetxean behar al da Mendaron?' - Mendaron badakagu lokal bat Udalak emanda eta hiru kuadrila elkartzen gera. Gainera, oin hasi gera kuadrila batzuk aisialdirako ekintzak antolatzen gauzak prestatzen eta apaizak lagatzen digu lokala. Jende gaztiak lokala bihar dau.

12 - Gurasoek asko sufritzen al dute zurekin?'- Txikitxan igual bai, ze oso bihurrixa nitzan, baina zenbat eta gehixio hazi, orduan eta gitxio sufri-



tzen dabela uste dot.

13 - Zer da gurasoengandik gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxi?' - Gehixen, ez diala gehixegi sartzen nere bizitzan eta gitxi, batzuetan gauza asko eskatzen ditzutela eta ez diela dana ematen, haina hori igual nere arazua da.

14 - Laguntzen al duzu etxeko lanetan?' - Ez, esaten diot amari ohia ez itxeko, ze neri ez jata inporta ohia in barik sartzia lotara, baina...

15 Alkoholik gabe ondo pasa daiteke?'- Bai, nik ez dot alkoholik edaten eta juerga mordo bat itxen ditzut.

16 - Irakurri duzun azken liburua?' Azkena, Institutuan bialduta-koa bat: 'El mundo es ansi'.

17 - Sexua maitasunik gabe ala maitasuna sexurik gabe?' - Bat aukeratzekotan, maitasuna sexurik gabe.

18 - Birjinitatea traba ala bertutea?' - Garrantzi gabeko gauza bat da.

19 Homosexual batek maite zaituela esango balizu?'- Errespetau, ingo nuke, beste edozein bezela.

20 Sinesten al duzu betirako maitasunean?' Bai.

**INTERESEKO
T K**

OSASUNA

Anbulategia:

- Larrialdiak 943 461111
- Tranda hartzeko . 943 743354
- Planning-a 943 742950
- Alkoholiko Anonimoak . 943740385
- D.Y.A (anbulantzia) . 943 464622
- Gurutze Gorria .. 943 743864
- Mendarcko Ospitalea.. 943 756264
- Odol Emaileak .. 943 743936

GARRAIOATZIS

- Eusko Trenbideak .. 943 740442
- PESA (Eibar) .. 902 10 12 10
- Taxi geltokia .. 943 740898

UDALA

- Euskara Zerbitzua... 943 744366
- Udal Kirol Patronatua.. 943 744415
- Kultura Zerbitzua.. 943 742158
- Ilendaroko Udala... 943 756100
- Ongizate zerbitzua .. 943741008
- Udaietxea 943 741050
- Udaltzaingoa..... 943 741394

BESTELAKOAK

- Elgoibarko Izarra ... 943 741626
- Kiroldegia 943 744415
- Kontsumo Bulegoa .. 943 743088
- Liburutegia 943 743525
- Musika Eskola 943 742145
- Mintxeta 943 744315
- Parrokia 943 740842
- Postetxea 943 741547
- Gaztetxea 943 743572

ADINEKOEN ETXEA

- San Lazaro Egoitza.. 943 740296
- Zaharren Biltokia ... 943 740526

IKASTETXEA

- Haur Eskola 943 74 21 41
- 111 (EPA) 943 74 08 80
- Herri Eskola . 943 74 08 79
- 943 74 41 32
- Herri Institutua
- Arredurre 943 74 02 67
- Ezenarro (Meka).. 943 74 44 80
- Ikastola 943 74 44 41
- Pilar Ikastetxea... 943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

- BARREN 943 74 41 12
- El Diario Vasco ... 943 74 40 73
- El Correo Español. 943 74 10 82
- Egin 943 10 84 21
- Zazpiki irratia .. 943 74 34 74

**20
ostirala**

**19:00 MUSIKESKOLAKO
GAZTEEN BANDAREN
KALEJIRA**

**19:30 MUSIKESKOLAKO
GAZTEEN BANDAREN
KONTZERTUA**

Herriko Antzokian

22:15 ZINE KLUBA
"Caracter"

22:30 ANTZERKIA
"La Patro Teatro"
Gaztetxean

**21
larunbata**

12:00 ZAZPIKIREN
BILERA
Ganbaran

16:45 EIBAR-GASTEIZ-
AUTOPISTAREN
AURKAKO
MANIFESTAZIORAKO
AUTOBUSA

Irteera Txankakuako
autobus geltokitik
Antolatzailea: HB

18:30 PARROKI
ABESBATZAREN
KONTZERTUA
Parrokian

19:45 ITXAROPENA
ABESBATZAREN
KONTZERTUA
Udaletxeko arkupeetan

19:30-22:15 ZINEA
"Los amantes del
cfreulo polar"

**22
igandea.**

**9:00 MORKAIKORA
IRTEERA HAURENTZAT**

Antolatzailea: Eskola
Kirola programa
Irteera Plaza Handian

SANTA ZEZILIA
EGUNA

9:00 DULTZAINEROEN
KALEJIRA

9:45 BANDAREN
KALEJIRA

10:30 MEZA HILDAKO
MUSIKOEN OMENEZ
Parrokian

12:30 BANDAREN
KONTZERTUA
Herriko Antzokian

14:30 BANDAREN
ANAIARTEKO
BAZKARIA
Karakate Elkartean

16:30 HAUREN ZINEA
"Mr. Magoo"

19:30-22:15 ZINEA
"Los amantes del
efreulo potar"

**2
asteleena**

22:15 ZINEA
"Los amantes del
eireulo polar"

**28
osteguna**


22:15 ZINE KLUBA
"Affliction"

**27
igandea**

18:30 ODOL
ATERALDIA
P. M. Urruzuno 8an
22:15 ZINE KLUBA
"Affliction"

■ ZOI N IR

**11
NE
A**



Zuzendaria: Julio Medem
Antzezleak: Najwa Nimri,
Fele Martinez, Nacho Novo.

Los amantes del chiculo pola

Neskato baten eta mutiko baten artean maitasun istorioa sortzen da eskola adinean daudenean. Baina kasualitatez, baten ama eta bestearen aita elkar ezagutu eta ezkondu egiten dira. Orain anai-arrebak dira baina euren maitasun harremanarekin jarraitzen dute izkutuan. Halere, hainbat zirkunstantzia direla medio gure protagonistak banatu egiten dira etorbiduak direnean, berriz elkartzen dira oraingoan zirkulo polarrean.

• • • ||| • • • RI • al • • • IR • • • ||| ■ RI • • •

• **'La Patro Teatror antzetaldea Gaztetxean**

Gaur, ostirala (hilak 20), antzerki emanaldia izango da Gaztetxean gaueko 22:30ean hasita. 'La Patro teatro' izena du taldeak eta antzetzuko duten lana 'Lee-ciOn de orgasmo' da. Taldekide guztiak neskak dira eta lehenago ere izan ziren Elgoibarko Gaztetxean beste lan batekin. Ez da sarrerarik kobratuko.

• **Eibar-Gasteiz autopistaren aurkako manifestaziorako autobusa**

Elgoibarko HBk autobusa antolatu du bihar, hilak 21 (zapatua) Eibar-Gasteiz autopistaren aurka Gasteizen izango den manifestaziorako. 'Eibar-Gasteiz autopista zertarako?' lemapeko manifestazioa Eguzki talde ekologistak, EHNE sindikatuak, Gatzaga-Landa plataformak eta Deba bailarako hainbat kolektibok antolatu dute. Autobusa 16:45ean irtengo da Txankakuako autobus geltokitik.

• **Elgoibarko VIII. Nazioarteko Xake Txapelketa bilaren 21 etik 29ra bitartean izango da**

Bihar, hilak 21 (zapatua), Elgoibarko Nazioarteko Xake Txapelketaren aurkezpen ofiziala izango da eguerdiko 13:00etan Kultur Etxean. Aurkezpenean Gillermo Garate alkateak, Migel Angel Muela Euskal Xake Federazioko presidenteak eta txapelketako jokalariek hartuko dute parte. Txapelketan arituko diren jokalariek honako hauek dira: Oleg Korneev (Errusia), Elizbar Ubilava (Georgia), Vladimir Georgiev (Bulgaria), Luis Comas (Espainia), John Van der Wiel (Holanda), Antonio Fernhdes (Portugal), Mario Gómez (Euskadi), Francisco Vallejo (Espainia), Felix Izeta (Euskadi) eta Mareelino Si6n (Espainia). Xake partidak Kultur Etxean jokatu dira eta txapelketa hilaren 29ra arte luzatuko da.

• **Eskolarteko mendi irteera**

Eskola Kirolaren programaren barruan, Morkaiko Mendizale Elkartean eta Zuhaitz Astialdi Taldearen laguntzaz, eskola kirolean dabiltzan haurrentzat, hauen gurasoentzat eta irakasleentzat, mendi irteera antolatu da domekarako, azaroak 22. Goizeko 9:00etan Plaza Handian elkartuko dira Morkaiko aldera lehenik, eta ondoren, San Migelerantz abiatzeko. Ibilaldiaren asmoak Elgoibarko mendi inguruak ezagutzeaz bat, mendira irteten ohitzea, ingurugiroa errespetatzen ikastea, elkarlanaren balioa onartzea etab. dira. Eguerdiko 13:30ak aldera amaituko da ibilaldia San Migeleko frontoian. Hortaz, gurasoen laguntza eskatu nahi dute haurrak autoz herrira jaisteko.

• **Sendotza prestatzeko deialdia**

Parrokiako sendotza batzordeko arduradunek jakinarazi digutenez, azaroaren 28an, larunbata, Parrokiako barrutiko 16 eta 17 urte bitarteko gazteen sendotza prestatzeari ekingo zaio. Interesa duten gazteei dei egiten zaie datorren larunbatean, azaroak 28, eguerdiko 12:00etan Ubitarteko lokaletara joan daitezen. Sendotza prozesuaren bukaeran, sendotza hartzeko aukera izango dute.

• **Azaroaren 27an odol ateraldia izango da**

Elgoibarko Odol Emaileen Elkartek aditzera eman nahi du datorren ostiralean, azaroak 27, odol ateraldia izango dela Pedro Migel Urruzuno kaleko 8an duten egoitzan. Ordutegia ohiko da: arratsaldeko 18:30etik 20:30era bitartean. Deialdia herritar guztientzat da, bereziki 18 urtetik gorako gazteentzat.

ONGARRI zine kluba



Affliction (USA 1997)

Valladolid-eko iazko zinemaldian argazkilaritzaren saria eta aktore onenari ematen zaion saria jaso zituen. Wade izeneko gizona, EEBetako herri txiki bateko sheriffa da. Bere emaztearekin zuen han'ema-na eten egin da; alabarekin ere ez da ondoegi konpontzen. Inguruko sindikalista baten heriotza misterioIta ikertzen dagoela, zinegotzi baten pr toak jasaten ditu. Herriko tabernako emakumeak egoera itocrani honetatik irteten lagunduko dio.

Zuzendaria: Paul Schrader.
Antzezlea: Nick Nolte, Sissy Spacek, James Coburn.

FARMAZIAK

| | Egunez | Gauez |
|----|--|-------|
| 21 | Bidasolo Anduaga | |
| 22 | Bidasolo Anduaga | |
| 23 | Etxeberria Etxeberria (Errosario kalean) | |
| 24 | Escala Escala | |
| 25 | Bidasolo Bidasolo | |
| 25 | Etxeberria Etxeberria | |
| 27 | Anduaga Anduaga | |

ESCALA: Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 75 16 38
ANDUAGA: Mendarozabal, 1 Garagarza. Tel: 75 61 42
ZABALETA: Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 75 13 84

OKINDEGIA
 18 igandea Eizagirre

Lana

• ESKAINTZM

- Emakume heldua behar da interna etxeko ardura eramateko. **tr 943 74 01 75** (ostegun eta ostiraletan arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara)
- Mutil arduratsua behar da zenbait lan egiteko. **970 672 515**
- Igeltsema behar da esperientziarekin. **tr 943 12 08 63 909 71 05 91**
- Emakume euskalduna behar da etxekolanak egin eta 2 ume zaintzeko. **tr 943 74 42 43**
- Pertsona gaztea behar da informatikako tekniko bezala lan egiteko. Esperientzia baloratuko da. Interesatuak **idatzi 8 postakutxatilara**, Elgoibar.
- Neska behar da etxeko lanak egin eta ume bat zaintzeko. Ahal bada, euskalduna. **943 74 45 87**
- Mutila behar da mezulari lana egiteko. Gida baimenarekin. **tr 943 74 40 54** (goizez)
- **• ESKAERA***
- Ozenki irakurtzen dut eta gaixiak eta laguntza behar duten pertsonak zaintzen ditut. Badakit euskaraz. **is 74 23 89** (M. Jesus)
- Erizain Laguntzaile tituloduna eskaintzen da zaharrak edo gaixiak zaintzeko. **a 943 74 16 71**
- Mutila eskaintzen da tabernan lan egiteko. Esperientziarekin. **tr 943 74 25 66** (Aitor)
- Administrari eta komertzio ikasketak dituen neska lanerako eskaintzen da. **ir 943 75 50 45**
- Neska eskaintzen da etxeko lanak egin eta umeak edo zaharrak zaintzeko **ir 943 75 50 45**
- Bi gazte eskaintzen dira propaganda banatzeko **s 943 74 13 07** tarratsaldez)
- 38 urteko neska eskaintzen da gaixiak zaintzeko, bai ospitalean baita etxean gaez ere. **ir 943 74 31 75** (Carmen, goizez).

Entebizitzak

ENENRIIINIFEE

- Etxea hartuko nuke alokairuan, altzaririk gabe ahal bada. **a 943 74 09 44**
- Pisua saltzen dut Urasandin. Kanpora ematen du eta eguzkitzua da. **s 943 74 29 52** (20:00-22:30)
- Pisua alokatzen da Ubitarten. Isr **943 74 03 41**
- Apartamentua saltzen da Ezeautyn, **n 944 95 05 37** (Charo edo Javi)
- Etxea saltzen da Santa Ana kalean. 2. pisua, ganhararekin eta igogailuarekin. **ste 943 74 03 83** **tel. 943 74 18 34**
- San Bartolome 2an, 4. solairuan dagoen 25 m²ko teilatupeko lokala salgai. 1,5 milioi pta. **943 20 30 83** (Arantxa)
- Logelak ditut alokatzeko. Urasandi kalean. **a 943 74 03 93** (20:00etatik aurrera)
- Etxea salgai Mendaron. Sukaldea eta jangela guztiz ekipatuak (Vegasa eta **AEG**). 35 m²ko garajea eta 12 m²ko ganbara ditu. **n 943 75 62 43**
- Apartamentua salgai Loredon. Altzariak ditu eta garaje itxia. Prezio interesgarria. **943 74 29 32**
- Alokairuko etxean dagoen mutil batek laguna behar du partekatzeko. **ir 989 34 81 97** (Gaueko 21:00etatik aurrera).

Bestelakoak

- Irakasle batek beste irakasle edo langile batzuekin pisua alokatuko luke Bilbon. **re 94 68 424 69** (Nerea. 19:00-21:00)
- ♦ Caritas-ek kotxe kapota dauka ernateko. **a 943 74 15 09**
- Ehiza txakurra galdu nuen igandean Pedro Muguruza kalean. Beltza da, Norbaitek topatn badu, dei dezala **943 74 17 87** zerbaki-ara.
- Gris koloreko katu pertsu aurkitu dut. Murrta eta oinak beltzak ditu. Galdu duenak dei dezala **943 74 00 33 telefonora** (Emiliana).
- Txakur txiki bat hartuko nuke.s. **943 7 46 14**

Salerosketak

• SALDU•

- Taberna saltzen da Mendaron. Bezeroak ditu, eguneko menua, pintxoak, erretegia... **tr 943 75 62 85**
- Lancia Delta Integrale SS AF autoa saltzen da. 124.000 km ditu. Merkea. **943 75 62 43**
- Mendaron bezero a.sko dituen taberna saltzen edo alokatzen da. **is 943 75 50 16**
- Amazona Aestiva loroa saltzen da, 97 anilla, Arrara **929 43 81 54** (Xabier)
- Lokal komertziala saltzen da Urasandi Sean. 27 m² ditu. **n 943 75 12 76**
- Larousse enziklopedia eta bi suplemento saltzen ditut. **tr 943 19 50 98** (Esther. 20:00-21:00)
- Super Nintendo kotsola saltzen da. Bi mando eta sei jolas ditu. **ze 943 74 22 75** (Iiigo)
- Bodyboard hat saltzen da, Wave Rebel. Aletak Rip Curl eta 2x3ko iraje motza. Merke. **is 943 74 38 76** (Ivan)
- + Land Rover motza saltzen dut. Egoera onean eta merke. **13' 943 74 06 88**
- Bideo-kotsola saltzen da. Super Nintendo, bi mandu eta zazpi jolasekin. **1:r 943 74 41 47**
- Gazteen logelarako altzariak salgai. merke. **a 943 74 20 41**
- Ford Orion 1.600 GHIA zuria saltzen da. 250.000 pta. Interesatuak galdetu Merkatu Plazako 22, postuan. (Ana)
- Kutxa forma duen ohe tolesperrira saltzen da. Pinuaren egurrez eginga. Oso polita. **s 943 74 40 85**

EROSI•

- Trikitixa bat erosiko nuke, 3 edo 4 ahotsekoa, **te 943 75 61 83**
- Egoera onean dagoen bigarren eskuko pianoa emsiko nuke. **tr 943 76 56 78** (M. Jesus. Goizez)

Garajeak

- Garajea alokatzen da, San Roke Sean. **n. 943 74 11 61**

Agurrak

- Zorionak **M. Karmen Apellanizi hilaren 18an** urte bat gehiago bete zuelako. Anai-arreba eta iloba Leire eta Oihanaren partez.
- Zorionak **Aritz Tobalinari** hilaren 17an 14 urte bete zituelako. Adrian, Pascual eta Asierren partez.
- Zorionak **Ane Palominori hilaren 23an 14 urte beteko dituelako**. Paseual, Adrian eta Asierren partez. **Zorionak, mafiosa!**
- Zorionak **Maidier Gomezi** azaroaren 11n 9 urte bete zituelako. Ikastolako **4A eta 4B mailako**en partez. **Aupa Maidier!**
- Zorionak **Leire Martinezi hilaren 9an urteak bete zituelako**. **Laizunen partez.**
- Zorionak **Xabier Ansolari** here urtehetetze egunean familia osoaren partez.
- Zorionak **Julen Arregiri larunbatean**, hilak 21, urte bat beteko duelako. Familia osoaren partez, bereziki osaba-izeba eta lehengusu Beñat eta Jokinen eta aitona amonen partez.



- Zorionak **Antonia Linaresi** azaroaren 17an urteak bete zituelako. Familiaren partez, bereziki Maite eta Manoloren partez.



- Zorionak **Maieleni** hilaren 24an urteak beteko dituelako. Amaia, Endika eta lehengusina Mireia eta Itsasoren partez.



- Zorionak **Borjari** hilaren 23an 7 urte beteko dituelako. **Aita, ama eta Nerearen partez. Musu haundi bat.**



E I B A R K O

Liburu

A Z O K A

Azaroare n 20tik - 29 r a

Euskal eta erdal
Nobedadeak
Euskal Diskagintza

% 10eko behera ena

Lanegunetan:

Goizez, 11:30 - 14:00

Arratsaldez, 7:00 - 21:00

Jaiegunetan:

Goizez, 12:00 - 14:30

11 11 11 11 11 UMMJIL

Antolatzailea: Euskadiko Liburu Azoken Batzordea



BABESLEA: Eusko Jaularitzako Kultura Saila **LAGUNTZAILEA:** Eibarko Udala - Kultura Saila

LANTRA

1.964.000 PTA.



PREVER plana eta BEZ (IVA)
PREZIOAREN BARRA

Hyundai Lantra



1111911 11911191
1111 iw imi w rawr rint
MENDARO AUTOAK

GIPUZKOARAKO BANATZAILE OFIZIALA

DONOSTIA

Zunalarregi, 1

Tel: 943 31 22 00

ELGOIBAR

Olaso, 27

Tel: 943 74 32 00

EIBAR

Otaola, 27

Tel: 943 70 13 82